


Año LV. urtea

135 - 2023

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

Hazitik liliak

Zenbait ekarpen euskal ikasketen ikerketan

Olatz Leturiaga Angoitia

Aitor Lizardi Ituarte

Iñigo Urrestarazu-Porta

(editore gonbidatuak)

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 135. zk. - 2023

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

HAZITIK LILIAK. ZENBAIT EKARPEN EUSKAL IKASKETEN IKERKETAN

Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte & Iñigo Urrestarazu-Porta
(editore gonbidatuak / editores invitados / guest editors)

Hitzaurrea

Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte, Iñigo Urrestarazu-Porta 7

Itxurazko egonkortasun linguistikoa eta hazkunde indexikala Bermeoko (lako) aldagaian

Azler Garcia-Palomino 11

Euskararen intonazioaren aldakortasuna: monografien ekarpena

Varun DC Arrazola 53

Jarraitu aditzaren erregimen-aldaketa testu akademikoen argitan

Sergio Monforte 69

Urigoitiko hiztegitxoari buruz

Asier Gonzalez Casado 101

Lizarrako gazteak: euskararen erabileran oinarritutako hiztun berrien profilak

Ainhoa Pardina Arenaza, Mikel Pérez González 125

Ama idazleak *Aitaren etxea* (2019) eta *Amek ez dute* (2018) eleberrietan

Aitana Albisua-Ortiz 151

Espazioaren eta ibiliaren errepresentazioak Pello Lizarralderen bi eleberrietan

Asier Urkiza Sánchez 175

Orixeren *Mireio* (1930). Literatura proventzarraren eta euskal literaturaren arteko zubia

Maialen Fernandez Martinez 205

Euskarazko bideojokoen azterketa deskribatzailea lokalizazioaren ikuspuntutik

Itziar Zorrakin-Goikoetxea, Maitane Junguitu Drona 231

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals

277

Espazioaren eta ibiliaren errepresentazioak Pello Lizarralderen bi eleberritan

Representaciones del espacio y la movilidad en dos novelas de Pello Lizarralde

Representations of space and mobility in two novels of Pello Lizarralde

Asier Urkiza Sánchez

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

aurkiza003@ikasle.ehu.eus

<https://orcid.org/0009-0001-3941-8821>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv135.8>

Artikulu hau nire 2021eko master amaierako lanaren atal bat da (*Espazioa eta ibilia Pello Lizarralderen eleberrigintzan*), argitalpen honetarako egokitu eta doitua. Eskerrak eman nahi dizkiot Mikel Ayerberi, zuzendari lanetan emandako laguntzarengatik eta egindako iruzkin zein zuzenketengatik. Baita Mari Jose Olaziregi eta Lourdes Otaegiri ere, MALaren defentsa egunean egindako oharrengatik. Azkenik, mila esker Pello Lizarralderi, lanaren eranskin gisa hura elkarrizketatzera joandakoan izandako eskuzabaltasunagatik eta, batez ere, literaturagatik.

Jasotze data: 2022/10/24. Behin-behineko onartze data: 2023/04/27. Behin betiko onartze data: 2023/05/10.

LABURPENA

Artikulu honen helburua da Pello Lizarralderen bi eleberritako espazioa eta ibiliaren errepresentazioak aztertzea. Horretarako, *Larrepetit* (2002) eta *Argiantza* (2020) eleberrietan espazioaren hainbat osagaik –paisaiak, batik bat– duten presentzia eta eleberrietan behin eta berriro errepikatzen den ibiliaren gaia aztertu dira. Eleberrien analisi literarioa egin eta gero, osagai espazialak jorratu zein ibiliaren gaineko ekarpenak egin dituzten Doreen Massey, Nigel Thrift, Edward Soja eta Gilles Deleuze ikerlarien lanetara jo da, eta Teoria Ekokritikoa ere sostengu izan da. Azkenik, gaion errepresentazioari buruzko ondorioak eman dira.

Gako hitzak: nobela; narratologia; ekokritika; paisaia; mugikortasuna.

RESUMEN

El objetivo de este artículo es analizar las representaciones de la movilidad y el espacio en dos novelas de Pello Lizarralde. Para ello, se ha atendido a la presencia de diversos componentes del espacio, sobre todo del paisaje, y se ha abordado el tema de la movilidad en las novelas *Larrepetit* (2002) y *Argiantza* (2020). Tras el análisis literario de las novelas, se ha recurrido a trabajos de investigadores como Doreen Massey, Nigel Thrift, Edward Soja o Gilles Deleuze, que han trabajado sobre componentes espaciales y han hecho aportaciones al campo de la movilidad, apoyándonos también en la Teoría Ecocrítica. Finalmente, se han aportado conclusiones sobre la representación de estos temas.

Palabras clave: novela; narratología; ecocriticismo; paisaje; movilidad.

ABSTRACT

The purpose of this article is to study the space and mobility in two novels by Pello Lizarralde. To this end, the novels *Larrepetit* (2002) and *Argiantza* (2020) were analysed, focusing on representations of landscape and home, and the subject of mobility. After providing a literary analysis of the novels, the contributions of researchers who worked on space and the study of mobilities such as Doreen Massey, Nigel Thrift, Edward Soja or Gilles Deleuze were used, along with Ecocritic Theory. Lastly, conclusions have been given concerning the representation of these subjects.

Keywords: novel; narratology; ecocriticism; landscape; mobilities.

1. SARRERA. 2. LIZARRALDEREN NOBELETAKO EREMUETAN BARNERATZEN: ANALISI LITERARIOA. 2.1. *Larrepetit*. 2.2. *Argiantza*. 3. ESPAZIOA. 3.1. *Espazioaren* definizioak mugatzen. 3.2. *Spatial Turn*. 3.3. Paisaia. 3.4. Paisaia eta natura. 4. MUGIKORTASUNA ETA IBILIA. 4.1. *Mugikortasunera* hurbilketa teoriko zenbait. 4.2. Mugikortasun-subjektuak. 5. ELEBERRIETAKO ESPAZIOA: PAISAIK. 5.1. *Larrepetit*. 5.2. *Argiantza*. 6. IBILIA. 6.1. Ibiltariak. 6.2. Iheslariak. 6.3. Ibiliala, etxea, espazio domestikoak eta jatorria. 7. ONDORIOAK. 8. LIZARRALDEREN LANAK. 9. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Euskal literaturan ibilbide isila bezain trinkoa eta esanguratsua egin duen autoreetako bat da Pello Lizarralde. Estilo beregaina garatu duen autorea da, eta bereizgarritasun horretan badira nabarmentzen diren bi alderdi: idazlearen eleberri guzti-guztiak ibiliarekin eta espazioarekin estuki lotuta daude. Eleberrien antolaketa formalak espazioaren gaineko pertzepzioa markatzen du eta nobeletako pertsonaiek harreman handia dute espazioan zeharkako mugimenduekin, izan ihesaren eraginez, izan lanbideak zein langabeziak behartuta. Artikulu honetarako, Lizarralderen bi eleberri aukeratu dira, aipatutako elementuen garrantziaren erakusgarri: *Larrepetit* (2002) eta *Argiantza* (2020) nobelak, hain zuzen. Kritikaren oniritzia jasotako bi eleberriek (biak ala biak Euskadi Sariaren eta Kritika Sariaren irabazle) ibiliaren eta espazioaren errepresentazioaren bi mutur adierazten dituzte. Hori horrela, Lizarralderen eleberrigintzan adibide esanguratsutzat har daitezke, aztergai ditugun ezaugarriak argi ageri direlako.

Testuetan osagai horien arrastoa aletzeari ekin aurretik, analisirako erabilgarriak izango diren *espazioa* eta *ibilia* kontzeptuen gaineko ekarpen teorikoak zehaztuko dira, *espazioaren* definizio arazotsuetatik hasi (Massey, 2005; Thrift, 2006) eta kontzeptu horren barruko hainbat elementu zehatzago jorratzeraino; hala nola, paisaia eta espazio domestikoak, XX. mendean gertatutako *Spatial Turn* (Tally, 2013) delakoa tarteko dela. Lizarralderen lanetan horiek duten presentziaz aritzeaz gain, espazioaren irudikapenentan naturaren agerpena dago, eta, ekokritikaren lanabes teorikoak baliatuz, irudikapen horien arlo etikoa aztertuko da (Glottfelty, 1996), baita garapen historiko-ekonomikoari loturiko espazioaren antzaldaketa ere (Harvey, 1989; Soja, 1989). Orobat, espazioaren errepresentazioek Lizarralderen estiloarekin izan dezaketen harremanaz jardungo da.

Ibiliari dagokionez, beste alde batetik, *mugikortasunaren* hainbat definizio eman eta gero (Cresswell & Merriman, 2011), lanabes teoriko jakinen bidez tamaina hartuko zaio, hala nola *nomada* (Deleuze & Guattari, 1980/1997; Galfarsoro, 2005) edota *etxegabea* kontzeptuen bidez (Bauman, 1996).

Erreferentzia teoriko horien laguntzarekin Lizarralderen testuetara joz gero, agerikoa da espazioaren eta ibiliaren ezinbestekotasuna, alderdi giltzarriak baitira autorearen literaturgintza ulertzeko. Gaiok behin eta berriro agertzen dira bere lanetan, ñabardura eta hurbilketa berriekin, eta horrek berebizikoa egiten du horien analisi xehea, bi gaien arteko harremana zein obra batetik besterako bilakaera zertan diren jakiteko. Lizarralderen sei eleberritan, izan ere, garapena ikus daiteke horien trataeran, bi multzo nagusi osatu ahal izateraino. Aztergai ditugun *Larrepetit* (2002) eta *Argiantza* (2020) eleberriek, hain zuzen, garapen horren bi puntu esanguratsu islatzen dituzte, eta obra osoko joeraren erakusgarri izan daitezke.

2. LIZARRALDEREN NOBELETAKO EREMUETAN BARNERATZEN: ANALISI LITERARIOA

Pello Lizarralde Larraza Zumarragan jaio zen, 1956ko urriaren 3an. Aspalditik Iruñean bizi da eta, egun erretiratuta badago ere, ogibidez euskara irakasle izan da. Hamar obra argitaratu ditu orain arte: zazpi nobela, bi narrazio liburu eta poema liburu bat. 1978an kaleratu zuen *Hilargiaren hotzikarak* poema liburua, bere lehenengo lana. Horren ostean, *E pericoloso sporgersi* (1984) eta *Hatza mapa gainean* (1988) eleberri laburrak eman zituen argitara. Ondoren, *Sargori* eta *Un ange passe –isilaldietan–* narrazio liburuak etorri ziren, 1994an eta 1998an, hurrenez hurren. 2003an Euskadi Saria lortu zuen *Larrepetit* (2002) nobelarekin. Orduz geroztik batez ere nobelagintzari emana da, *Iragaitzaz –ilumbistan–* (2008), *Orbanak* (2012) eta *Elur bustia* (2016) lanek erakusten dutenez. Oraingoz, 2020an argitaratutako *Argiantza* eleberria da bere azkenengo obra. 2020ko 111 Akademiaren Saria eta Euskadi Saria irabazi zituen liburuak.

Idazle lanaz gain, beste hainbat alorretan ere jardun izan du. Esaterako, itzulpen-gintzan ibilbide joria du, lau autoreen lanak ekarri baititu. Italiatik itzuli ditu, alde batetik, Natalia Ginzburgen *Hirira doan bidea* (1942/2001) eta *Arratseko ahotsak* (1961/2003), eta bestalde, Gianni Celatiren *Denak hasperenka* (1976/2005). Elio Vittorini idazle siziliarraren *Solasaldia Sizilian* (1941/2021) ere ekarri du euskarara. Era berean, frantsesetik Patrick Modianoaren *Udaberri alua* (1993/2008) itzuli du. Bestalde, zenbait musika talde eta abeslarirentzako letrak idatzi ditu. Jarraian aztergai diren bi eleberrien analisi narratologikoa aurkeztuko da, espazioa eta ibiliaren inguruko geroko azterketa era egokian uler dadin.

2.1. *Larrepetit*

2002an *Larrepetit* eleberria eman zuen argitara Pello Lizarraldek Erein argitaletxearekin. Obrak 2003ko Euskadi Saria eta Kritika Saria irabazi zituen. *Hatza mapa gainean* (1988) bezala, ihesaldia da eleberriko gai nagusia, ihes baten kontakizuna baita

Larrepetit (2002) ere. Izenburuko –*Hiru izen*– horrek nobelako protagonistei egiten die erreferentzia: Abel eta Joxe iheslariak dira, eta herriz herriko produktu salmentan dabilen Lainez bidaianta. Lehenengo biek kartzelara zeramatzaten guardiei eskapo egiten diete nobela hasieran, eta ihes egiten dute. Baserri batean morroi ibilitako gaztea da Abel, nagusiarekin eztabaidatu eta gero kalabozoan dagoena. Joxe, oster, lanik ezagutzen ez duen ijitoa da. Halaber, ez dakigu zer dela-eta dagoen kalabozoan. Bertan topo egiten dute biek eta gardien hutsegite batez profitatzen dira hanka egiteko. Bien bitartean, Lainezen etxerik etxeko bisitak kontatzen ditu egileak, baita bere bizimodu mugikorraren gaineko zertzeladak eman ere. Une batean, plano bateko zein besteko pertsonaien istorioek elkartzera egiten dute eta harreman horretan ebatzen da kontaktuzuna, muga zeharkatzeko saiakerarekin.

Abelen ezizena da *Larrepetit* –intsektu hegalaria eta jauzkaria, kolore arrekoa– eta bi pertsonaien metafora eskaintzen du; izan ere, hala dabilta biak larreetan barrena, iheska, beti mugimenduan, jauziz jauzi bidea urratuz. *Hatza mapa gainean* (1988) itsasoan amaitzen da, eta *Larrepetiteko* (2002) pertsonaien patua mugan erabakitzen da. Muga da, hortaz, eleberraren beste gakoetako bat. Muga fisikoa da, Lainezen laguntzaz, Joxek eta Abelek zeharkatzeko asmoa dutena. Muga, halere, nobelan planteatutako beste gai baten metaforatzat ere har liteke: Joxeren eta Abelen bizimodu alderraiaren eta herrietako biztanleen egunerokoaren arteko muga, Lainezen kutsu urbanoaren eta bisitatzen dituen herritarren izaera puskaz tradizionalagoaren artekoa. Espazioaren aldetik ere halako kontrajarpa sumatzen da: alde batetik, basoa eta mendia, iheslariaren babeslekuak; beste alde batetik, herria eta errepidea. Errealitate desberdinetatik datozen Lainez eta Joxeren bizi ikuskeren arteko aldea ere har daiteke mugaren irudikapen gisa.

Narratologikoki aurreko nobela baino konplexuagoa da. Esan bezala, bi planotan bereizten da, narratzailearen fokalizazio behaviorista baliatuz, hirugarren pertsona eta orainaldian. Hasieran nor bere aldetik ageri dira pertsonaiak, Joxe-Abel bikotea batetik, eta Lainez bestalde; bukaera aldera, ordea, elkartu egiten dira, eta beren patua uztartzen dute. Kanpo-fokalizazioa sumagarria da nobelan; hots, narrazioa pertsonaie-tatik kanpokoa da, baina narratzaile orojakilerik ez dago. Aitzitik, pertsonaiek egiten eta esaten dutenaren berri baino ez dugu, beren pentsamendu eta sentimenduz jakin gabe. Dena dela, irakurleari errazago suerta dakioke pertsonaia batzuen barne gogoaz ezagutzea, horretarako zantzu gehiago ematen baititu autoreak. Gauzak horrela, Lainezen eta Abelen sentimendu eta pentsamenduak errazago igartzen dira, Joxerenak baino. Fokalizazio sumagarria aldakorra da oraingoan, esan bezala, plano batetik bestera ibiltzen baita narratzailea, Joxe-Abel bikotearen eta Lainez saltzailearen ibileren kontaketa, hurrenez hurren.

2.2. Argiantza

2020an kaleratutako *Argiantza* da, oraingoz, Pello Lizarralderen azkenengo eleberrria. Gainerako kontrara, data zehatza dakar kontakizunak: 1982ko irailean girotuta dago. Ramon Beitia da protagonista, hainbat zine aretoren egoeraz arduratu behar duen langilea. Enpresako jabe berriak, krisia dela-eta moldaketak egiteko, aretoak

ikuskatzera bidaltzen du eta nobelak Beitiaren bidaia kontatzen du. Jubilatzeaz dago, edo, hobeto esanda, dagoeneko jubilatua behar luke, hainbat pasartetan zehazten den bezala. Halere, bere borondatez egiten du lan, erretiroa onartzeko asmorik gabe. Beitiak hainbat herritako eta hiritako aretoak bisitatzen ditu, eta bisitetan zein batetik besterako lekualdatzeetan ardatzen du autoreak kontaketa.

Beraz, beste bidaia edo ibili baten aurrean gaudela esan liteke. Beitiak sei eguneko bidaia egin behar du, aretoak ikuskatzeko. Gaia zehazte aldera, nobelan bi gainbehera kontatzen direla esan daiteke. Lehenengo eta behin, emaztearen heriotzaren ondoren bakardadeak zamaten duen protagonista dago. Eskuetatik ihes egiten dion bizitza nolabait harrapatu nahian dabil Beitia, erretiroaren ideiak izuturik eta emaztearen oroitzapena beti gogoan duela. Beste garai batekoa izaki, ezin laketurik dabil 1980ko hamarkadako testuinguruan. Dekadentziaren irudia da nobelako protagonista. Era berean, gaia maila orokorrago batera eramanda, mundu baten akaberaren eta beste baten hasieraren kronika ere bada nobela. Bideoaren sorrerak markatzen duen trantsizio garaia ageri zaigu, kapitalismoak koxka bat gehiago estutu zueneko¹. Bideoaren zabal-kundea eta zinema aretoen itxiera urte horietan garatutako eta Margareth Thatcher eta Ronald Reagan ordezkari nagusi dituen sistema ekonomiko berriaren sintoma gisa paratzen ditu egileak. Aretoetako langileen bizi baldintzak ekartzen ditu orriotara Lizarralde. 1980ko hamarkadako industria eraldaketa ere igar daiteke eleberrian, Bilbo bide den hiriko periferiaren deskribapenetan. Lan gatazkek ere badute beren lekua eleberriaren amaiera aldera. Horrenbestez, zinema aretoen gainbehera gizarte eta sistema oso baten dekadentziaren metaforatzat aurkezten da².

Narratologikoki, orain arteko Lizarralderen eleberri konplexuena da, etengabeko plano aldaketek osatzen baitute mosaiko gisako narrazioa. Batetik, hainbat aretotako langileen ikuspegia ematen da, eta, beren begietatik, lehenengo pertsonan eta orainaldian jasotzen dira Beitiaren bisitak. Bestalde, Beitiaren egunerokoa dago, bidaian zehar idatzitakoa eta gertaeren inpresioa lehenengo pertsonan ematen duena. Bi horiez gain, Lizarralde ohiko kamera plano baliatzen du gerentearen ibilerak hirugarren pertsonan eta lehenaldian kontatzeko. Berebat, zinema aretoetara egindako bisitak hainbat ikuspegitatik ematen dira. Sarritan, autoreak hiru narrazio mota darabiltza eszena beraren berri emateko: kamera plano behaviorista, langileen ikuspuntua eta Beitiaren egunerokoa. Nobelan zehar hemezortzi aldiz aldatzen du fokalazioa egileak, aberastasun narratologiko handiko kontaketa. Lizarralderen ekarpenak William Faulknerren *As I lay dying* (1930) liburua dakar gogora, gertaera bertsuen inguruan askotariko ikuspegiak eskaintzen dituela eta. Nobelan neoliberalismo jaioberriak ekarritako berrantolaketa espaziala islatzen da.

1 Euskal Telebistako *Artefaktua* saioan 2020ko irailaren 19an eginiko elkarrizketan hori zehazten du egileak. Sarean eskuragarri: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/kultura/artefaktua/pello-lizarralde/oso/7187/181277/>

2 Bideoaren nagusitasunaren hasiera erakusten du The Buggles taldearen *Video killed the radio star* abestiak. 1979an sortu zuten eta MTV katearen lehenbiziko bideoklipa izan zen, 1981eko abuztuaren 1ean emana. Bideoak irratiari gain hartu diola nabarmentzen da abestian, eta ikus-entzunezkoen mundua guztiz eraldatuko duela iradokitzen du. Bada kantuan esaldi argigarri bat, garapen teknologikoari erreferentzia egiten diona, ustez: «Video killed the radio star, video killed the radio star, in my mind and in my car, we can't rewind, we've gone too far».

Herritarren bilguneetako bat zen zine aretoari gain hartu zion esparru pribatuari dagokion bideoak 1980ko hamarkadan. Espazioaren pribatizazioa izango litzateke horren ondorioa. Horrez gain, zinema areto txiki asko desagertzeak saltokietako areto handien nagusitzea iragartzen du. Halaber, horrek eragina izango du hainbat pelikularen banaketan. *Blockbuster* handiek produkzio txikiagoak, kulturalki interesgarriak, alde batera uzten dituzten garaiaurrekarizat har liteke nobelakoa. Hortaz, ondorio sozialekin batera (espazioaren pribatizazioa), kulturaren ere oihartzunak utzi ditu zinema aretoak desagertzeak, globalizazio kulturalaren eragileetako bat izango denez gero.

3. ESPAZIOA

Lizarralderen nobeletan espazioa zertan den aztertzen hasi baino lehen, komeni da kontzeptuak dakarren mami teorikoa aurkeztea. Ondorengo analisia ulertuko bada, nahitaezko deritzogu berau marko teoriko batean txertatzeari. Hori horrela, lehenik, kontzeptuaren hainbat definizio emango dira, baita hainbat autoreren lanetan berorrek izandako bilakaera aztertu ere. Bigarrenik, espazioarekin lotura estua duen alderdi bat jorratuko da, gure analisiaren erdigunean datzana: paisaiarena, hain zuzen; estetikaren alorrean izandako ibilbidea aipatzeaz gain, bere osagai nagusia izan ohi den naturari hainbat ikuspegitatik helduko zaio.

Espazioa gai zabala eta ertz ugariak izanik, hurbilketa teorikoak ere zeharkakoa izan behar du. Korrante teoriko jakin bati soilik begiratuta ezinezkoa litzateke horren ikergai zabala bere osotasunean ulertzea; hori dela eta, hainbat alderditatik egindako ekarpenak hartu beharko dira aintzat. Espazioaren gaineko gogoetak, bestek beste, Geografiatik, Ikasketak Kulturaletatik, Literatur Ikasketetatik edo ekokritikatik egindako proposamenak biltzen ditu. Makulu horiek guztiak beharko ditugu, ahalik eta sakontasun handienaz jorratzeko.

3.1. *Espazioaren* definizioak mugatzen

Hala dakar *Euskaltzaindiaren hiztegiak* (Euskaltzaindia, 2012) *espazio* hitzari dagokion lehenengo adieran: «Gauzak kokaturik dauden hedadura». Nekez irudika daiteke definizio zabalagorik. *Espazioaren* definizio zehatzik aurkitzea, izan ere, ez da batere erraza. Sarritan harekiko lotura estua duten beste kontzeptu batzuen kontrakarrean definituta aurkitzen dugu. Tim Cresswellek (2004, 10. or.) *place* hitzari kontrajarriz definitzen du: «Space, then, has been in distinction to place as a realm without meaning –as a “fact of life” which, like time, produces the basics coordinates of human life». Egitatetzat aurkezten du Cresswellek, giza bizitzaren oinarri nagusi gisa. Edward Relphen arabera (1976, 8. or.), espazioaren izaeraren inguruko eztabaidan ez gara adostasunera iritsi, «amorphous and intangible» baita, azaltzea eta aztertzea ezinezkoa den elementua.

Nigel Thrift geografoak, berriz, espazioari buruzko lau gako ematen ditu *Place* izeneko 2006ko artikuluan, eta haren nolakotasuna era laburrean azaltzen entseatzeko da: lehenik eta behin, Thriften (2006) arabera, inguratzen gaituen oro dago espazialki antolatua, eta antolamenduak berak zehazten du espazioen arteko harremana, bestelako

banako ezaugarrien gainera. Bigarrenik, ez du zedarrizten duen mugarik; aitzitik, espazio mota guztiak geruza ugariak dira, «porositate» handikoak. Hirugarrenik, mugimenduarekin estuki lotua dago; izan ere, ez dago finkatuta eta geldirik dagoen espaziorik, etengabeko aldaketa biziak ezaugarritzen baitu (gero sakonduko da espazioaren eta mugimenduaren arteko harremanean). Azkenik, ez dago espazio mota bakar bat, plurala da berau, neurri eta eskala bereizikoa, askotariko harremanak sortzen dituena. Doreen Masseyk (2005), berriz, izaera erlazionala aitortzen dio lehenik espaziori, el-karreraginean funtsatzen denez. Modu berean, aniztasun eremu gisa aitortzen du, ibilbide ugari aldi berean gertatzen diren eta heterogeneotasuna oinarri duen lurralde bezala. David Crouchek, Masseyk bezala, etengabe birsortzeko gaitasuna ere aipatzen du: «Spaces emerges for this persistently “in the making”, through a complexity of forces, influences, practices» (Crouch, 2012, 45. or.). Kontingentea litzateke, behin-behinekoa.

3.2. *Spatial Turn*

Hala, XIX. mendean diskurtso filosofikoa denboraz arduratu zen, espazioaz baino gehiago. Ekarpen nagusiak denboraren, historiaren eta teleologiaren inguruan gauzatu ziren. Joerak mende horren amaieran eta berriaren hasieran jo zuen goia, Henri Bergsonen memoriari buruzko lanekin eta Marcel Prousten eleberriekin. Espazioa denborarekiko lotura estuan ikusten zuten teorikoek, garrantzi gutxiagoko elementutzat hartuz, askoz jota berorren azpial gisa. 1967ko *Of other spaces* hitzaldi famatuan, ordea, XX. mendea «espazioaren garai»-tzat jo zuen Michael Foucault pentsalari frantziarrak:

The present epoch will perhaps be above all the epoch of space. We are in the epoch of simultaneity: we are in the epoch of juxtaposition, the epoch of the near and far, of the side-by-side, of the dispersed. We are at a moment, I believe, when our experience of the world is less that of a long life developing through time than that of a network that connects points and intersects with its own skein (Foucault, 1967/1984, 1. or.).

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, gero eta teoriko eta filosofo gehiago hasi ziren *espazio* kontzeptuan arreta jartzen eta hainbat haritatik heltzen. Mendearen bigarren erdialdeko susperraldiaren aitzindariatzat Henri Lefebvre jo zuen Sojak (1989). Ildo horretan, postmodernitateak eta globalizazioak *espazioaren* ulerkeraren berria eskatu eta *alderdi espazialera* zuzendu zuten begirada zenbaitek, Lefebvreren ekarpen aitzindariaren ondoren. Bi kontzeptuok definitzea erraza ez izanik, batik bat beroriek ekarritako denboraren eta espazioaren berrantolaketari so egingo diogu. Hala, David Harveyren eta Edward Sojaren ekarpenak kontuan hartzekoak dira horri dagokionez. Aipatutako fenomenoek erabat antzaldatu zuten espazioaren ikuskera, eta haren gaineko hurbilketa berrien beharra agerian geratu zen. Sojak (1989) bistan uzten du testuinguru garaikidean espazioak duen ezinbestekotasuna, besteak beste Foucaultengan eta Lefebvreengan oinarrituz. Bereiziki bere hirugarren «espazializazioak» egiten dio erreferentzia testuinguru postmodernoari. Fredic Jamesonekin (1991/2020) bat etorrita, aro berriak hala denboraren nola espazioaren kontzeptualizazio berria eskatzen duela diosku: «The third spatialization is couched in a cultural and ideological reconfiguration, a changing definition of the experimental meaning of modernity, the emergence of a new posmodern culture of space and time» (Soja, 1989, 62. or.). Harveyren (1989)

arabera, gizarte bateko ekoizpen moduan gertatutako aldaketek antolaketa espazialean dute isla; hots, eredu ekonomikoaren garapenak espazioan (eta denboran) moldaketak dakartza: «First, progressive monetization of relations in social life transforms the qualities of time and space» (Harvey, 1989, 228. or.) edo horren ifrentzua zera da: «that modifications of the qualities of space and time can result from the pursuit of mentary objectives» (Harvey, 1989, 229. or.).

3.3. Paisaia

Espazioarekin harremana duen beste elementu esanguratsuetako bat *paisaia* da; kokaleku jakin batetik ikus daitekeen lur zatia litzateke berau. Bi ezaugarri uztartzen ditu: lur eremu zedarritua izatea, batetik, eta ikusmiratua izatea, bestalde. Hain zuzen, azken honetan bereizten da *toki* edo *leku* kontzeptutik. Tokia barnetik biziko luke subjektuak, paisaiak kanpotik jabetuko litzatekeen bitartean. Lucy R. Lippardek bikain laburbildu bezala, tokiarekin kontrajarriz: «Unlike place, (which I defined above as seen from the inside) lanscape can only be seen from outside, as a backdrop for the experience of viewing. The scene is seen. The word lanscape is used interchangeably for a scene framed through viewing (a place) and a scene framed for viewing (a picture)» (Lippard, 1997, 8. or.). Beraz, *tokia* bizi eta *paisaia*, aldiz, begiratu egiten dugula esan daiteke. Lehenengoarekiko harremana bizimoduak, errotzeak eta partaidetza sentimenduak osatuta dago; bigarreanean, ostera, subjektu-objektu erlazioak agintzen du, eta bion arteko harreman pasiboa dago.

Paisaiaren sorrera estetikaren esparruan kokatzen da, XIV. mendean Italian eta Herbeheretan sortutako margolaritza paisajistikoa. Artelan horiek eta beste batzuk aintzat hartuta, paisaiari buruzko kosmobisio filosofikoa sortu zen XVIII. eta XIX. mendeetan. Raffaele Milaniren (2008, 45. or.) arabera, izan ere: «advertimos, por primera vez en el siglo XVIII, la conciencia de una determinada situación cultural: la promoción del paisaje a ideal del arte y de la vida estética». Naturaren behaketa estetikoa da *paisaia*, naturaren osotasuna mugarriztatuz subjektu batek eratutako sorkaria. Ondorioz, arte mota jakin baten moldetzat ere hartu zen, Kantek hauspotutako eta edertasuna helburu bakar duen teoria artistikoaren katebegi gisa, alegia. Horrek zera eragin zuen: haren izaera artelanera mugatzea, berau artearen asmakuntza gisa ikustea. Tamaina jakin batera mugatu zen. Alex Noguén (2008, 157. or.) hitzetan esateko: «una ventana que representa, separa, limita e inventa». XIX. eta XX. mendeetako artearen historiari begiratua emanez eta dadaistek, surrealistek eta situazionistek paisaiaren trataeran egindako lana aintzat hartuz, 1970eko hamarkadako *land art* delakoari erreparatzen dio, azkenik, Noguék (2008). Paisaiari kanpotik so egin beharrean, hartan disolbatzera jo dute artistek azkenengo horretan. *Land art* hori, itxura batean, arteak hastapenetan bultzatutako ereduari kontrajartzen zaio: «El paisaje puede ser un lugar de encuentros, la coexistencia de dos órdenes, con derechos compartidos, con reivindicaciones pendientes, sin lugares preferentes ni paisajes vistos por un espectador externa» (Nogué, 2008, 164. or.).

Artearen eremutikako hurbilketez haratago, Berberichen eta besteren (2012, 19. or.) iritiz, «how we shape, construct, imagine, transform and destroy it». Hori ere bada

paisaiaren baitakoa; hau da, paisaiarekiko hartu-emanak berak osa dezake berau. Praktikarekin bezainbat, izan ere, identitatearekin dago harremanetan. Kultur identitatearen ekoizpenean ezinbesteko elementua dugu, kulturari buruzko ideiak zein boterearen gaineko ideologia gorpuztu baitezake. Partaidetza edo errotze sentimendua eragin dezake, esaterako. Haren bidez, geure burua ez ezik, bizi garen herrialdea ere zehazten dugu. Alabaina, ez da beti horren gardena izaten. Nozio estatikoa baino gehiago, mugikorra da, malgua eta zurruntasunari ihes egiten diona. Naturaren, tokiaren eta espazioaren bidegurutzeta da, «where identities are exchanged, performed and constructed» (Berberich et al., 2012, 21. or.). Identitatea bezala, paisaia ez da sekula bukatzen, etengabeko sorkuntzan bizi den heinean.

3.4. Paisaia eta natura

Paisaia guztiak naturakoak ez badira ere, ikusi denez, *paisaiaren* ideiak sorreratik bertatik egin dio erreferentzia naturari; paisaia ulertzeko osagai zentrala dugu, beraz. Ez da erraza *natura* definitzen. Raymond Williamsen (1976/2015) ustez, hizkuntzaren hitz konplexuenetako bat da. Hark emandako hiru definizio posibleetatik, paisaiari lot dakiokena hirugarrena da: «the material world itself, taken as including or not including human beings» (Williams, 1976/2015, 165. or.). Hala, aipatutako paisaiaren estetikak naturarekin lotura duten inplikazioak eduki ditzake. Jörg Zimmeren (2008) iritziz, estetika horren naturaren trataerak etika jakin bat ekar dezake berarekin; etika hori naturaren eta gizakiaren arteko harremanaren auziari lotzen zaio erabat; egileak «la explotación desconsiderada de nuestro ambiente natural» (Zimmer, 2008, 31. or.) esaten dion horri. Zimmerrek (2008) «naturaranzko itzule-ra rousseauniarra» zein bestelako etika «klasikoak» alboratzen ditu, arazoa azaletik jorratzen dutelakoan. Horren aldean, etika ekologiko sendoa proposatzen du. Hori horrela, lehenik etikaren izaera asimetrikoa azpimarratzen du, beste edozeinengatik bereizten duena; bigarrenik, dimentsio kolektiboa ere nabarmentzen du; hirugarrenik, etorkizunera begirakoa da izatez, ez berehalakoa, baizik eta datozen belaunaldietan pentsatzen duena.

Ikusi den antzera, horrelako ekarpenek izaera beregaina aitortzen diote naturari, eta existitzeko subjektu baten beharrik ez duen osagai independente gisa aurkezten dute. Eredu estetikoan, eta gaia literaturara ekarriz, horixe bera izango da ekokritika bezalako korrante teorikoek aldeztuko duten etika. Ekokritika XX. mendeko 1990eko hamarkadaren hasieran sortu zen, gehienbat ekologismotik zetozen ikerlariak osatuta. Literaturaren eta ingurumenaren arteko harremanak ikertzen ditu; hots, testuetako naturaren errepresentazioen analisisan aritzen da, baina ikuspegi ekologiko tinko batetik. Azterketa estetikoak, beraz, asmo politiko baten barnean egiten da, ideologia eta agenda politiko jakin bati jaramon egiten dionez gero: ekologismoarenari, hain zuzen. Cheryll Glotfeltyren (1996) esanetan:

Just as feminist criticism examines language and literature from a gender-conscious perspective, and Marxist criticism brings an awareness of modes of production and economic class to its reading of text, ecocriticism takes an earth-centered approach to literary studies (Glotfelty, 1996, 18. or.).

Izendapena 1970eko hamarkadan sortu bazen ere, jatorria lehenagokoa du. Ekokritikaren arrastoa, izan ere, XIX. mendeko estatubatuar tranzendentalismoan aurki daiteke, zeinaren ordezkari gorenak Ralph Waldo Emerson eta Henry David Thoreau liratekeen. Edonola ere, Buellek (2005) aurrerago kokatzen du eremu teorikoaren hastapena, eta bi lan mugarrri aipatzen ditu: Leo Marxen *The machine in the garden: technology and the pastoral ideal in America* (1964) eta Raymond Williamsen *The country and the city* (1973). Bi lanek literaturaren bidez errepresentatutako iruditegi nazionalen barruko dinamika historikoez ziharduten, eta horretan guztian paisaiaren irudikapenek izandako lekua zehazteko asmoa zuten. Ekokritikari egindako ekarpena, hala ere, bi liburuen asmo ekologikoan datza.

Ekokritikak jorratzen dituen gaien artean, bada lehenengo aitzindarietan (Emerson eta Thoreau) dagoeneko nabarmentzen zen topikoa. *Wilderness*³ izenekoa da delako gai hori eta zera litzateke: gizakiaren eraginetik at dagoen natura, giza presentziak kutsatu gabekoa. Greg Garrardek (2012) dioenez, *wilderness* horrek tradizio judeo-kristauan ditu sustraiak. Funtsean, *etxe* nozioarekiko kontrajarpenean sortutako ideia izan zen; exilioaren lurraldea, ezezagunarena. Desertuetako natura basatia jar daiteke adibidez, Itun Zaharrean jasotako Abraham eta herri israeldarraren kondairak adierazi legez. Orobat, erromatarren garaiko ermita kristauen patua ere desertua izan zen. Hori horrela, kontzeptuaren garapen goiztiarrak arriskua, askatasuna eta araztasuna bezalako ideiak biltzen zituen. Alabaina, Ipar Amerikako XIX. mendeko autoreek ideia birmoldatu zuten, eta kontzeptuaren zentzua aldatu egin zen. Thorearentzat, esaterako, kontinente berriko natura basatia eta beldurgarria da, baina ederra ere bai. Natura basaren ikuskizunak sublimearen sentimendua pizten du ikuslearengan. Esan nahi baita, paisaiaren estetikak iradokitzen zuen gozamen sentipenetik haratago, *wilderness*ak bestelako sentipenak ere eragiten ditu, hala nola beldurra eta arriskua. Paisaiaren irudikapen hutsaren xerkan baino, horrek pizten duen sentipen gorenaren bila doa behatzaila: «The American idea of the wilderness might seem closer to the aesthetic category of the sublime than to the picturesque» (Byerly, 1996, 53. or.). Kontzeptuak garrantzia nabarmena du Estatu Batuetako XX. mendeko hainbat idazle kanonikorengan; besteak beste, Herman Melville, William Faulkner eta Cormac McCarthyren obretan.

4. MUGIKORTASUNA ETA IBILIA

Espazioarekin batera, mugikortasuna da Lizarralderen eleberrietan aztertuko den beste elementua, biek ala biek autorearen lanetan esangura handia dutelako hipotesitik abiatuta. Ezer baino lehen, argitu beharra dago askotariko terminologiaren artean (*lekualdatzea*, *trantsitua*, *iragaitea*, *bidaiia*...) azpiataleko izenburuan aipatutako hitzak lehenetsi direla, hots, *mugikortasuna* eta *ibilia*. Biek antzeko esangura dute; ez guztiz berdina, halere. *Mugikortasuna* nozio teorikoa da, ondorioz horixe da nagusiki atal teorikoan

3 Ez da erraza euskaraz ordain egokirik aurkitzea. *Collins Elhuyar biztegiak* (Elhuyar, 2016) hurrengo adierak dakartza: «1 n. eremu, mortu» eta «2 n. (fig) oihan, baso». Agerikoa da jatorrizkoak bigarrenarekin duela lotura handiagoa, figuratiboa denez gero. Halere, ez ditu guztiz jasotzen jatorrizkoaren oihartzun filosofikoak.

aurkeztuko dena. *Ibilía* bere adierazpide zehatza litzateke, kontzeptu fisikoagoa, hortaz. Lizarralderen lanetan ageri eta aztertuko dena da berau, horrexegatik erantsi da lanaren izenburuan. Hori guztia esanik, *espazio*arekin egin bezala, *mugikortasun*aren aurkezpen teorikoa emango da. Lehenik eta behin, berorren definizioak proposatuko dira, eta espazioarekin duen lotura zehaztuko da, hainbat autoreren lanak aintzat hartuta. Bigarrenik, mugikortasunak aztertuko dira, baita horien inplikazio teorikoak ere: exilioa, diaspora eta nomadismoa. Azkenik, mugikortasun subjektu diren bi pertsonaia ereduaz jardungo da, *ibiltariak* dei ditzakegunez, *flâneur*az eta etxegabeaz, hain zuzen.

4.1. *Mugikortasun*era hurbilketa teoriko zenbait

Mugimenduarekin, lekualdatzearekin, estuki lotuta dago *espazioa*. Nigel Thriftten (2006) ustez, izan ere, mugimenduarekiko harremana da bere ezaugarri nagusietako bat, eta etengabeko mugimenduan bizi da; areago, *mugimendua*, prozesua besterik ez dela baieztatzen du Thriftek (2006, 141. or.): «Process (or perhaps, more accurately, force-being) is all in that it is all that there is, process arising out of informed or “transducted” material and the lines of force of invention that result from “creating a novel entity other than the entities given in disjunction”».

Izaera erlazionala (Massey, 2005) aitor diezaiokeen neurrian, halaber, espazioa beti egongo da berau zeharkatzen duten eragileek baldintzaturik. Ildo beretik, bere jite performatiboa dela-eta, bertan bizi direnekiko hartu-eman etengabe dago. Era berean, lurrazal soila baino gehiago, *espazioa*, edo zentzu zabalean *espazialitatea*, gizakiok munduarekin harremantzeko dugun modu ezinbestekoa da: «Produced through and embedded with practices, from quotidian negotiations to global strategising, these implicit engagements of space feed back into and sustain wider understandings of the world» (Massey, 2005, 8. or.). Horrekin batera, prozesu gisa ere aurkeztu da *espazioa*, sekula amaitu gabeko bilakaera moduan. Ulerkera esentzialistei ihes egiten dien espazioaren irudikapen hibridoa eta dinamikoa aldeztu badugu, are garrantzitsuagoak bihurtzen dira espazio horretan agente aktibo diren subjektuak.

Espazioan mugitzen diren elementuez ari gara. Mugikortasuna, izan ere, espazioaren berebiziko osagaia da. Halaxe definitzen du Colin Divallek *mugikortasuna* (2014, 36. or.): «The flows of persons and things along with the immaterial circulation of information enabled by these flows». Komeni da, halere, *mugikortasuna* eta *mugimendua* bereiztea, hitzon antzekotasunagatik. *Mugimenduak* ekintzari berari egiten dio erreferentzia; *mugikortasunak*, ostera, espazioan zeharkako mugimendua inguratzen duten sare, dinamika zein botere harremanak adierazten ditu. *Mugimendua* zeharkatzearen, ibiltzearen ekintza bera litzateke. Kontrara, *mugikortasunak* (teoria anglosaxoiak *mobilities* izendatu duena) mugimendua ahalbidetzen duen sistema azaltzea eta berorren atzean dauden arazoak agerian uztea du xede. Atal honetan mugikortasunari erreparatuko zaio batez ere.

Goiko definitzietatik ondoriozta daitekeenez, subjektuen lekualdatzeari, ibiliari, esaten zaio *mugikortasuna*. Hori horrela, beharrezkoa da espazioan mugitzeko era askotarikoei erreparatzea. Agian hobe da *mugikortasunak* aipatzea, hamaika mota daudenez

gero, bakoitzak bere testuinguru eta baldintza beregainekin. Alde batetik, mugikortasun arrazionala legoke, zeina parametro logikoen arabera azaldu baitaiteke, interes zehatzak eta abiapuntu nahiz helmuga jakin batek definitzen duena. Mugikortasunaren ikuspegi koherentea sustatzen dute horrelakoek. Cresswellek & Merrimanek (2011) adierazi bezala, aipatutako ikuspegian oinarrituta hainbat geografok *mugikortasuna* prozesu lege eta arau finkoen mende zekusaten, elektrizitatearen mugimenduekin pareka litekeen prozesu soil gisa. Bestalde, ordea, bestelako mugikortasun bat ere bada go, askotariko indarretan funtsatzen dena, mugikortasun hegemonikoaren zirkuitu edo sistema bera auzitan jartzeraino. Mugikortasunok ez diote ibilbide koherente bati jarraitzen, arrazoiaketa zientifiko arrazionalak azal ezin dezakeen mugimenduak direnez gero. Urte luzez baztertu eta anomalia zientifikotzat jo izan dira geografiaren alorrean. Sistema koherente baten barruan sartzen ez diren mugimenduak izanik, era askotako arrazoiak xehatzen dituzte. Besteak beste, masa mugimenduak, gutxiengo baztertuen lekualdatzea eta ibilbide argirik gabeko ibiliak mota honetan sailka daitezke: «We see the qualities of mass movements, as well as marginalized or purportedly “irrational” movements, as important as worthy to study» (Cresswell & Merriman, 2011, 3. or.).

4.2. Mugikortasun-subjektuak

Hau guztia dela eta, datozen orriotan mugikortasun sistema hegemonikotik kanpoko adibide batzuk aletuko dira. Masa edo komunitate batekiko harremana dakarten exilioa eta diaspora bezalako mugikortasun motak badaude ere, guk norbanakoarekin lotuago dauden (baina era kolektiboan ere uler daitezkeen) ibiltari mota batzuk jorratuko ditugu, nomadak, hain zuzen.

Nomadismoa da gaur egungo gizartean mugikortasun mota aipatuetako bat, bereziki pentsamendu postmoderno garaikidean oparoa izan den kontzeptua. Exiliatuaren figuratik hurrengoan bereizten da: nomadak uko egiten dio jatorrizko etxearen ametsari; kontrara, kontzeptu mugikor gisa dakusa etxea, beti gainean eraman daitekeen bizilekutzat. *Nomada* hitza grekotik dator, *nomas* hitzetik, hain zuzen, eta ‘artzaintza’ esan nahi du. J. D. Petersek (1999) adierazi bezala, greziar kulturean kontzeptu negatiboa zen, pentsaezina baitzen haientzat hiritik kanpo bizi zena. Judaismoan eta kristautasunean, baina, askoz ere arruntagoa izan da izaera nomadikoa. Desertuko bizitza nomadikoa araztasunaren eta espiritualtasunaren ikur bilakatu zen. Kristautasunak, halaber, unibertso nomadikoan sar litezkeen hainbat pertsonaia ekarri zituen, hala nola erromesarena.

Kontzeptuaren jatorria edozein dela ere, hitza bereziki emankorra izan da gizarte globalizatuari buruzko hainbat ekarpenetan. Gilles Deleuzeren eta Felix Guattariren usteetan, «nomaden “izaera” aginte zentralizatuen aurka jartzean datza» (Galfarsoro, 2005, 30. or.). Subjektu garaikidea nomadikoa da Deleuzerentzat eta Guattararentzat. Aginte zentralizatuaren aurka altxatzeaz batera, nomadaren beste ezaugarrietako bat da bereizketa binarioak zalantzan jartzea. Nomadak inguruarekin harremantzeko era berria dakar, «puesto que todo lo vive en relaciones de devenir, en lugar de efectuar distribuciones binarias entre “estados”» (Deleuze & Guattari, 1980/1997, 360. or.). Halaber, nomadaren mugitzeko modua bera bestelakoa da, mugikortasun mota horrek ez baitu puntu

batetik besterako ibilbidea zehazten. Aitzitik, «el movimiento [...] deviene perpetuo, sin meta ni destino, sin salida ni llegada» (Deleuze & Guattari, 1980/1997, 361. or.). Mugimendua errizomatikoa da, neurtezina. Era berean, mugimenduak berak espazioarekin talka eragiten du, berau territorializatuta eta desterritorializatuta. Nolabait esateko, mugitzeaz batera, harekiko harreman eta lotura berriak sortzen ditu nomadak.

5. ELEBERRIETAKO ESPAZIOA: PAISAIK

Oro har, Lizarralderen nobelen hurrenkera kronologikoa aintzat hartuta, *Hatza mapa gaineanetik* (1988) *Argiantzara* (2020) landa eremuko paisaiatik paisaia urbano-rako bilakaera ikus liteke. Hala ere, hainbat ñabardura egin behar zaizkio baieztapen horri, bilakaera pixkanakakoa eta gorabeheratsua denez. Autoreak, izan ere, paisaia oro idealizaziorik gabe ekartzen du nobeletara. Lizarralderen nobeletan ez dago paisaia homogeneorik; kontrara, hibridazioa da gehien ezaugarri nagusia. Landaren eta industriaren arteko mugak lausotzera jotzen du autoreak, ñabardura ugariko trantsizio lurraldeak, askotariko ezaugarriak dituzten paisaiak, eskaintzeko. Halaber, soilik bisuala baino gehiago, paisaia elementu dinamikoa da eleberriotan. Pertsonaiei performatzeko eta harremanak eratzeko aukera ematen die, David Crouchek (2012) zehaztutako izaera performatiboari jarraikiz. Zentzumenen bidez hartu-eman bizia dute ibiltariak inguruarekin. Ingurunea ukitu, usaindu, entzun eta sentitu egiten dute, hura behatzeaz gain. Paisaiak beren identitatea itxuratzen laguntzen die, ez era esentzialean, baizik eta modu dinamikoan, bizian eta aldakorrean. Oro har, paisaiarekiko hartu-emanak teoria ez-errepresentazionalak adierazitako prozesu horiek guztiak jartzen ditu martxan. Hori horrela, alderdi sensoriala zein emozioa, desira eta espiritualtasuna (Lorimer, 2005) zeresan handikoak dira paisaiaren esperientzian. Beraz, azpimarratu beharrekoa da pertsonaiek paisaiarekin duten harremanak izaera performatiboa duela eta harreman horien bitartez bai pertsonaiak, bai ingurunea birsortzen eta itxuratzen doazela. Emma Waterton geografoak dioen antzera (2019, 71. or.): «All possibilities for engagement with landscape cannot help but be highly performative; and they surge and pulse, always in movement and in the process of being formed or becoming». Jarraian, aztergai ditugun bi eleberrietako paisaiaren errepresentazioak jorratuko dira.

5.1. *Larrepetit*

Larrepetiten (2002) ere landa eremuak agintzen du. Kontakizunaren hasierak irakurlea natura paisaian barneratzen du, erabat:

Berriro begiak mendi aldera eginik, gauaren soinueta jarri du gogoa. Kilkerren loaldia bukatzeaz dagoela pentsatzeak berotasun sentsazioa ekarri dio. Lurrera hurbiltzeko beharra sentitu du, eta kokoriko jarri da, bi eskuak belarrean. Lurraren izerdian usain beroak eta hotzak, hezeak eta idorrak dira nahasian (L, 11. or.).

Esan liteke naturak aurreko obran baino garrantzi handiagoa duela, pertsonaiek harreman sakonagoa baitute harekin, batik bat Joxeren eta Abelen planoan. Goiko pasartean ikus daitekeen bezala, Abelek zentzumenen bidez paisaia «sentitzen» du,

harekin komunikatzen da, hori du natura bere egiteko modua. *Hatza mapa gaineanen* (1988) horren zantzurik egonagatik, berorren presentzia askoz nabariagoa da honetan. Eleberri honetako paisaian, beraz, zentrala da natura eta ezin konta ahala natura elementu aurki ditzakegu. Goragoko analisisian aipatutako osagaiez gain, zuhaitz eta landare motak jar litezke adibidetzat, eta floraren eta faunaren atalean zehaztuko direnak.

Esan bezala, *Hatza mapa gaineaneko* (1988) landa eremuko osagaiak berragertzen dira, modu landuagoan: mendia, bidezidorrak, bordak, baserriak, erreka, herria... Aurreko nobelan abeltzaintzaren presentzia islatzen duten zantzuak bazeuden ere, argiago agertzen dira oraingoan, artzain bordak ez ezik, pentzeak ere kausitzen direlako. Larreak mugatzen dituzten txarrantxak ugariak dira nobelan eta abereen presentzia azpimarratzekoa da, gizakiaren lanaren lagungarri; mandoa eta behiak, kasu. Hala-ber, landa ez da industriaren eta garapen teknologikoaren eraginetik at dagoen lurraldea. Alde batetik, garapen ekonomikoak ekarritako ingurumenaren ustiaketa garbi azaltzen da. Abelek basoetan pinua hartzen ari den presentziaz ohartarazten du Joxe: «Dena pinuz betetzen ari dituk» (L, 54. or.). Espezie autoktonoen galera dakarren pinuen birlandatzea aipatzen da, beraz, jarraian bere egoera ekonomikoarekin lotzeko: «Ba, horrela segituz gero, dena hustuko duk. Zergatik uste duk nabilela ni horrela, eh?» (L, 55. or.). Beste une batean, morroi zebilen borda utzi izanaren arrazoiaren artean hau diotso: «Han ez da niretzako moduko lanik. Gauzak asko mudatu dira... Bada-kizu, makinak eta sartu nahi omen ditu seme zaharrenak» (L, 26. or.). Horrelakoek Harveyk (1989) jorrotutako espazioaren antzaldaketaren alderdi ekonomikoa ematen dute aditzera, bilakaera ekonomikoak espazioan eragina duela, alegia. Harrobia ere agertzen da, mendietako harkaitza ustiatzeko tresna. Bestalde, inguruan industriaren presentzia dagoelako zantzuak ematen dira, harrobiaz gain kisu labea ere agertzen delako. Gasolindegia aipamenak ere inguruaren nolabaiteko modernizazioa erakusten du.

Hasieran adierazten den bezala, «maiatzeko bigarren astelehena izan behar du» (L, 11. or.), udaberriko paisaiak dira eleberrikoak. Horrek azal dezake, neurri batean, nobelan naturak duen indarra, erne berria den paisaia ikusten baita. Eguraldiari dagokionez, epela da, goxoa: «Haize leun eta epel batek hozten hasia den belardia orrazten du tarteka» (L, 53. or.). Udaberriak ere animalien presentzia areagotzen du eta, oro har, ugariak dira naturaren hotsak. Natura ernea da, bai, baina ez horregatik atsegina. Animalien agerpenak zein naturak ageri duen indar eta izaera basak *wilderness* delakoa salatzen dute. Eguraldi txarra dago nobelako hainbat pasartetan, baita euri jasa ere, azken zatian, esaterako. Nobelaren azken paragrafoan, modu poetiko samarrean, Abelek udaren nostalgia agertzen du: «Orduan Abelek udamineko ilunabar bat desiratu du. Desiratu ditu dorreko ezkilaren soinua, landa urruneko suaren argidura, kilkerak... Eta, gauza guztien gaintetik, enaren itzal azkarrak lur kiskalia zeharkatzen» (L, 127. or.).

Era berean, Lainez pertsonaia giltzarria da nobelan dagoen beste gatazka baten erre-presentazioan: bizimodu tradizional eta modernoaren arteko kinkan, hau da, Raymond Williamsek (1973) aztertutako landa ermuaren eta hirigunearen arteko tentsioan. Ez

dakigu sortzez Lainez hiritarra denentz, *Dodgeak BI* matrikula badu ere⁴. Bidaian-tak hiriko zinemetako programak eta filmetako argazkiak pasatzen dizkio Maixabeli, herriko ostatuko jabearen alabari. Agerikoa da Maixabelen lilura, Lainez berarekiko baino, bizimodu urbanoarekiko. Bere etxez etxeko ibileran produktuak saltzen ibiltzen da Lainez, eta badirudi Elizeneako Joxepari beharrik ez izanagatik ere edozer sal diezaiokeela, «urruneko zera» (L, 56. or.) horretaz baliatuta. Herrien modernizazioa berriro ere hizpide hartuta, hala dio Joxepak: «Jakina, zuk uste duzu herrian bakarrak garela eta aise saltzen dugula, baina hemen ere aldatzen dira gauzak. [...] Hemengo bi etxetan, konparazione, bizarra egiteko makina hori erosi dute. Badakizu, Pilis horiek...» (L, 60. or.).

5.2. *Argiantza*

Argiantzan (2020) paisaia hibridoak antzematen dira. Ez dago landa eremu garbirik, ezta metropoli erraldoirik (hiri handixeago bat agertzen dela badirudi ere), eta askotariko inguruak agertzen dira. Nobela hasieran itsaso ertzeke herria dago, aski urbanizatua egonagatik kutsu landatarra duena. Bigarren herrira bidean, *Larrepititen* (2002) bezala, pinuen botatzeari egiten zaio erreferentzia. Herri horretan, hain zuzen, agerikoa da industriaren presentzia. Halaber, industria nagusi da protagonistak bisitatzen duen hirian, baina natura paisaiak hurbil daudela dirudi: «Hainbeste biltegi eta fabriken artean zaudela zeure buruari galdetzen diozu non dauden hirian sartzean ikusi dituzun basoak eta larreak» (A, 29. or.)⁵. Nobelaren espazioaren hibridotasuna berriro ere landa eremu industrializatuekin adierazten da. Mendi hegaletan eraikitako langileen etxeek 1960ko hamarkadan eraikitzen hasitako langile etorkinentzako etxebizitzak dakartzate gogora. *Elur bustian* (2016) ez bezala, non gainbehera jota dagoen, industriak oraindik eusten diola igartzen da. Lantegi zahar eta hutsen bat bistaritzen du Beitiak, baina oraindik ere martxan jarraitzen duten fabrikak aipatzen dira. Garaian emandako industria eraldaketaren lehenengo zantzuak lirakeke itxitako fabrika horiek.

Landa eremu «aratzagoa» ere agertuko da beste atal batean: soroak, gari sailak, mahats parrak, traktoreak eta nekazaritza kulturaren zantzuak. Ramon Beitia protagonistak bisitatzen duen areto batez arduratzen den familiak, esaterako, nekazaritza du jarduera nagusi. Bestalde, hiri handiagoa ere azaltzen da, industriagune zabala duena. Euskal Herriko industrializazioaren sinbolo izandako garabi eta labe garaiak aipatzen dira (A, 73. or.), desindustrializazio prozesua oraindik hasita ez dagoen seinale. Olio orbanetz betetako ibai zikinak industriaren kalte ekologikoa ere islatzen du. Beraz, XX. mende hondarrean lehertzeaz zeuden bi krisiak mahaigaineratzen ditu autoreak, krisi ekonomikoa eta ekologikoa. Nobela, azkenik, hasitako inguru berean bukatuko da, itsas kostaldean, alegia.

4 Sorterria itsasotik gertu omen du (101. or.), baina bizi, behintzat, menditik hurbil bizi da. Urruneko gaztelaniaz mintzo den emakume baten azentuaz hau dio Lainezek, bizi den tokian etorkin ugari daudela adieraztearekin batera: «Bere bizilekuan maiz entzuten ditu Lainezek antzeko azentuak. Ez zaizkie arrotzegiak bera bezala mendi hegaletan eraikitako auzoetan bizi direnei» (L, 94. or.).

5 *Argiantza* eleberriko aipuak 2020ko lehenengo argitalpenari dagozkie. Liburuari erreferentzia egiteko A laburdura baliatuko da.

Eleberriko gai nagusietako bat bizimodu jakin baten galera da. *Argiantzako* (2020) paisaia hibridoa den bezala, halakoa da garaia ere, mundu baten bukaera eta beste baten hasieraren arteko trantsizio aroa. Tradizioaren eta modernotasunaren arteko talka protagonistak berak islatzen du. Esaten duenez, dagoeneko ez dauka traturik baserriko lehengusuekin, mundu hori aitaren eraginez ahaztu duelako. Ama baserritarra zuen, ordea: «Gogoan dut aitak, baserri kontuak ateraz gero, barre egiten ziola amari» (A, 42. or.). Baserri munduaren eta horrek zekarren guztiaren akabera sinbolizatzen du gerenteak, beraz. Mundu horren hondarrez osatua, ez du baliabiderik izango datorrenari egokitzeko. Bere dekadentzia, ostera, bisitatzen dituen aretoetan islatzen da: zinemen desagertzea, herriko aretoen aldean hirikoak gailentzea (A, 38. or.) eta, oroz gain, bideoaren sorrerak ekarritako zinema aretoen gainbehera. Hori guztia ematen dute aditzera Beitiaren ikuskatzeek. Baina, horrek, maila orokorrago batean, bizimodu kolektiboaren desagertzea ere badakar; zinema komunitatetik norbere egongelara darama, hau da, esperientzia kolektiboa zena indibiduala bihurtzen du. Finean, bizimoduaren eta sistemaren arteko kinka legoke, maila ekonomikoan hartutako erabakiek bizi eremuan zein alderdi sozialean eragina dutelako, Harveyren (1989) geografia marxistak aldeztutakoaren ildotik.

Askotariko paisaia horien barruan, gainerako eleberrietako pertsonaia eta inguru motak aurki litezke. *Orbanakekoak* (2012) bezalako nekazariak agertzen dira, errepide alboko soroetatik gerentea begiratzen dutenak (A, 51. or.), edota hura aurreratu ahal izateko errepidetik traktorea mugitzen dutenak. Nekazaritza du ogibide, halaber, zinema areto batez arduratzen den familiak. *Iragaitzazeko* (2008) kamioilariak ere agertzen dira, nezeserra eskuan errepide bazterreko jatetxetan (A, 65. or.). *Larrepetiteko* (2002) Lainezen antzera, berez bidaianta dela diotso areto bateko langileak gerenteari. Hirian, ostera, *Elur bustian* (2016) agertzen diren ibaiertzeko terrazak daude. Bizimoduari dagokionez, herrietan ere nabaria da gizarte tradizionalaren gainbehera. Kooperatibekin lotu izan den (A, 43. or.) herrian, esaterako, *Zarama* musika taldearen kamiseta darama gazte batek. Ikasteari utzita, osabak kooperatiban sartzeko kalaka ematen dio; berak, ordea, nahi ez. Hemen bi gauza geratzen dira agerian: alde batetik, Lizarraldek garaiko testuinguru kulturala ekartzen du, *punkarekin* eta *Euskal Rock Erradikala* deitu izan zitzaionarekin erabat lotua, tradizioetik aldentzen den kontrakultura bezainbat Ingalaterra eta Estatu Batuetatik iritsitako moda globala izan zena, alegia; eta, bestalde, aditzera ematen da 1980ko hamarkadako Euskal Herriko herri batzuetan eredu kooperatiboak izandako arrakasta, zeinak une batean zetorren sistema neoliberalari alternatiba irudi baitzuen. Eleberriak, dena dela, testuinguru desberdineko bi gazteren ikuspegia dakar, gazte *punka* dagoen modu berean nekazal familia bateko alaba ere agertzen baita, gurasoak mahats bilketarekin laguntzen dituen. Beitiak lehenengoari itxura txarra hartzen dio hasieratik; bigarrena, ostera, «beste garai batekoa» iruditzen zaio, bere keinuek «zera delikatu bat alaitasuna eta samurtasuna ezkututzen zituen» (A, 59. or.) baitute. Nahitaezkoa da bi gazteak epaitzeko modu ezberdinean zera ikustea, desagertzearen dagoen mundu horrekiko kutsu nostalgikoa eta datorrenarekiko mesfidantza.

Hainbat dira protagonistak gizartearen garapenari buruz egindako aipamenak, bere mundu ikuskeraz zertzeladak ematen dituztenak. Amaz mintzo denean, ezaguna zaio baserri munduko kulturarekiko txera: «Xaloa eta diskretua izateaz gain, nire aitak

sekula lortuko ez zuen hizkera jori bikaina eta nekazarien ateraldiak eta zirtoak zera-biltzan noizean behin» (A, 42. or.). Halaber, Beitiak neska nekazariarekiko erakusten duen miresmenean amaren izaera horren oroimina igar liteke. Beste pasarte batean, hala dio herri bateko paisaiaz: «Pixka bat ibiltzea nahikoa, jabetzeko zer ekarri eta zer utzi duen industriak. Dena ezin ona izan» (A, 29. or.). Horrekin batera, nobela amaierako eszena aipatu beharra dago ezinbestean, horixe baita Ramon Beitiari azkena ematen diona. Aretotako langileek, sindikatu bateko kide batek lagundurik, kargu hartzen diote gerenteari honek ikuskatutako azkenengo zineman. Protagonista *shock* egoeran sartzen da, azalpenik eman ezinda. Horrek bistaratuko luke, batetik, langile borroka eta langileon antolakuntza oraindik ere bizirik dagoela eleberriak islatzen duen garaian, *Elur bustiako* (2016) higituek erakusten duten sindikalismoaren gainbeherarik gabe. Bestalde, hala enpresaren jokaerak nola langileen erantzunak ordura arteko kapitalismo zoriontsuaren ideia apurtzen du eta gatazka aroa ekartzen, Euskaldunako borroketan gorpuzten dena, kasu. Nobelan kapitalismoaren estutzea zinema enpresan sartu berri den nagusi gazteak sinbolizatuko luke. Era berean, enpresari mota berria ere islatzen du gazteak. Egonkortasuna bilatzen zuen aurreko garaietako enpresaria baino gehiago, edozein modutan irabaziak pilatu nahi dituen horietakoa da. Ardurak dituen morroiaren lanak, baina, Ramon Beitiak hartzen ditu bere gain. Gertaera honen bitartez balirudike autoreak langileen alienazioa ere jartzen duela agerian. Beitia, izan ere, enpresako langile xumea besterik ez da, aretotako langileentzat ondorioak izango dituela jakinagatik ikuskatzeei ekin diena. Ekintza horrek ezinbestean akabera ekar diezaiokeela Beitiak badakiela ematen du, nobelan zehar galerari egindako aipamenak ugariak direnez gero: «Nahita ere ezin izango dut ahaztu egiten ari naizen honen ondotik zerbait galduko dugula, nahiz eta ez dakidan oso garbi zer galduko dudan nik» (A, 30. or.).

6. IBILIA

Pello Lizarralderen nobelak espazioan bezainbat ibilian oinarritzen dira edo, hobeto esanda, espazioaren zeharkako mugimenduan. Bi osagaion arteko elkarreragina nobela guztien funtsa dela esatea ere ez litzateke gehiegizkoa izango. Istorio gehienak ibilian, leku batetik besterako bidaian, gertatzen dira. Guztien korapiloa ere ibilbide batean gorpuzten da, kontakizuna berorren inguruan ardaztuz: norabide finkorik gabeko ihesa, handik hona dabilenaren lanaren xerka, desplazamendu bat eskatzen duen eginkizuna, bideak kurritzera behartzen zaituen lanbidea... Ibilian da, espazioarekin batera, nobelek partekatzen duten osagaia. Hala adierazi dute kritikari batzuek. Ibon Egañak (2012) dioenez, «bidea eta ihesaldia. Horiek dira egilearen nobela guztietan errepikatzen diren obsesioak, eta oraingoan ere ihesaldia da nobelaren bizkarrezurra»; Aritz Galarragak (2013) ere ihesaldiaren gaia nabarmentzen du *Hatza mapa gainean* (1988) obra goiztiarrari begirakoa itzultzean, «eta ez da Lizarraldek pertsonaia bat ihesean jartzen duen lehen aldia». Javier Rojok (2020), berriz, Lizarralderen literaturan ibiliak duen garrantziaz ohartarazten du: «Ez da ahaztu behar bidaia beste klabeetako bat dela Lizarralderen literaturan». Azkenik, Iratxe Esparzak (2016) autorearen obran bidearen gaiaren eta mugimenduaren zentraltasuna aipatzen ditu, «errepidea existenziaren iragatearen sinboloa da, mugimenduarena».

Jakina da bidea dela kronotopo mota ohikoenetako bat. Bajtinen (1975/1989, 51. or.) ustez, «existen pocas obras que no incorporen una de las variantes del motivo del camino; pero existen muchas que están estructuradas directamente sobre el motivo del camino, de los encuentros o aventuras en el camino». Lizarralderen nobela guztiak gai horren inguruan ardatzen dira. Pertsonaiek bideari ekiten diote, are, dagoeneko ibilian aurkitzen ditugu. Bidean zeharkako gertakariekin osatzen da narrazioa. Bajtinek (1975/1989) ekarri bezala, bidearena beste kronotopo batekin estuki lotua dago, enkontruarenarekin, hain zuzen. Nobeletako ibiltarien kasuan ere horixe antzeman daiteke. Protagonistek hainbat pertsoniarekin egiten dute topo ibilaldian zehar. Horieta-ko batzuk lehen mailako pertsonaiak dira, narrazioan berebiziko garrantzia dutenak, esaterako, *Larrepiteten* (2002) Joxe eta Abel bikotea Lainezekin elkartzen denekoa. Beste batzuetan, ordea, protagonistek bigarren mailako pertsonaiak aurkitzen dituzte, zeresan handiagokoak edo txikiagokoak; *Argiantzako* (2020) gerenteak eleberrian topatzen dituen aretoetako langileak lirateke horren adibidea. Ildo horretan, ibiliaren topikoa ikertzen dute behin eta berriro eleberriek. Gaiaren irudikapenik argienak pertsonaiak dabilzan bide fisiko horiek lirateke: bideak, kaleak, errepideak, autopistak, bidezidorrak, lasterbideak... Komeni da gogoraraztea Marc Augé (1993/2000) sortutako *non places* izendapenaren barruan sartzen direla toki horietako batzuk. Mugikortasunarekin harreman handia izanda, izaeraz iragankorrak dira, tokiek berez duten identitate baloreei ihes egiten diete. Ildo beretik, Edward Relphen (1976, 118. or.) us-tetan errepide berriak zein autobideak *placeless geography* deitzen dien horren osagai funtsezkoak dira.

Modu batera edo bestera, mugimenduarekin, ibiliarekin lotuta ageri da pertsonaia bakoitzaren izatea. Bizimodu erraria daramate gehienetan. Protagonistetan ez ezik, bigarren mailako hainbat pertsonaiatan ere antzeman daitezke ezaugarriok. Halere, oso bestelakoak dira bidera eman izanaren arrazoiak batzuen eta besteen kasuan. Batzuentzat ibilia berezko egoera da, besterik ez baitute ezagutu. Besteentzat, aldiz, aparteko egoera da eta ibiltariaren bizimoduari egokitu beharrean egongo dira. Izan ere, pertsonaiak bi multzo nagusitan bana daitezke: alde batetik, batzuk lanbideak edo eginkizun batek bultzatzen ditu mugitzera. Horiek ibilbide zehatza dute, aurrez ezarritako bideari jarraitu behar diote, baina ezarritako bidean daudela aurrera egitea beste lanik ez dute, bete beharreko mandatuaz gain ezerk ez ditu larritzen eta. Halere, zertxobait arakatu eta larritasunik badutela antzeman daiteke, ezinegon lauso batez lotzen baitzaizkio bideari, Lainez eta Ramon Beitiaren kasuetan ikus daitekeen bezala. Beste zenbaiten patua, ostera, zeharo ezberdina da. Pertsonaiok ihes egin asmoz dabilta ibilian, bizi-rik irauteko premiak hartaritzen ditu bazterrak kurrizera. Ondorioz, ez dira askeak lurraldean nahierara mugitzeko, tentuz neurtu behar izaten dute pausoa eta ezkutuan jardun. Modu berean, larri ibili ohi dira, estuasunak menderatuta.

Hala ere, esan bezala, batzuek eta besteek bizimodu bat partekatzen dute, izateko modu bat, geldirik ez egotera behartzen dituen egonezin eta zama bat, hainbat modutan isla daitekeena. *Larrepitete*ko (2002) guardia zibilen karakterizazioan barnebiltzen dira ezaugarriok: «Bideari emanak bizi diren askorenean bezala, gardien ibilkeran pairamena eta nekea ezagun dira» (L, 43. or.). Pertsonaia bakoitzaren barruan aurkituko du irakurleak ezinegon hori, guztiek partekatzen duten ezaugarri funtsezkoa dela

esan ahal izateraino, nahiz eta ezkutukoa izan. Mota batekoak edo bestekoak izan, beraz, izaera ibiltariak pertsonaia guztiengan eragiten du. Beren nolakotasunak toki bat esleitzen die gizartean eta beraiek ere jarrera jakin bat hartzen dute inguratzen dituenarekiko. Nolabait esanda, gainontzekoekin harremana izateko zein beren burua ulertzeko modu berezia garatzen dute, nortasun berezia dute, ingurua arakatzeko eta hura ezagutzeko hainbat era bizitzen dituzte... Laburbilduz, ibilia bizibide dutez gero, horrek beren izaera definitzen eta identitatea zehazten die. Jakina denez, bi pertsonaia motak dira ibiltariak, bien izana bidean definitzen den neurrian. Banaketa ezarri ahal izateko, lehenengoei, ibiltari arruntak diren horiei, besterik gabe *ibiltariak* deituko diegu; arrazoiren bat tarteko eskapo egiten dutenak, oster, *iheslari* gisa izendatuko ditugu.

6.1. Ibiltariak

Ibiltariak deitu zaie bidean lanbideak edo mandatu batek hartaratuta dabiltzanei. Zerbaitek behartzen ditu ibiltzera, zerk edo zerk batetik besterako mugimenduan jartzen ditu. Horietako batzuek atsegin hartzen dute ibilian, bidean gozatzen dute, beste batzuentzat kondena edo zorigaitzoko patua den bitartean. Guztien jarduna ibilian gauzatzen bada ere, askotarikoak dira bakoitzak burutu beharreko bidearen ezaugarriak eta premiak. Ibiltari bakoitzak, modu berean, bere ezaugarri eta egoera beregaina du. Horrelako pertsonaia nagusi dira nobeletan ihes egiten dutenen aldean. Besteekin parekatuta, gizartearen barrukotzat har ditzakegu; hau da, itxura batean ez daude, besteak bezala, gizartearen bazterrean. Halere, banaketa uste baino ahulagoa da eta ez dira gutxi talde batean egonda beste taldeko ezaugarriak dituztenak.

Larrepetit (2002), *Iragaitzaz* (2008), *Orbanak* (2012), *Elur bustia* (2016) eta *Argiantza* (2020) eleberrietan agertzen dira lehenengo ibiltarien taldeko pertsonaia. *Larrepetiteko* (2002) Lainez, esaterako, talde horretakoa da. Lainez bidaianta da, hots, etxez etxe produktuen salmentan dabilen bidaiaria. Lanbideak etxetik kanpo ibiltzera behartzen du, denbora gehiena herri batetik besterako mugimenduan pasatzera. Etxeak bisitatzen ematen du eguna eta herriko biztanleekin tratu estua du. Herrietan hiriko jende errespetagarritzat daukate eta, bere jatorri urbanoa dela eta, zenbait herritarrek begirunea diote. Horren erakusgarri da Etxexuriko alaba den Maixabelekin duen hartu-eman. Herritarren begietan erakargarria da Lainez, «urruneko zera hori» (L, 56. or.) duelako. Gizarte mailan ondo kokatutako ibiltaria da, beraz. Halaber, bertakoa ez bada ere, inguruaren ezagutza aski ona du eta badaki errepide eta bideetan barrera ibiltzen. Gauak herrietako ostatuetan igarotzen ditu. Otorduak ere toki horietan egiten ditu. Dirudienez, legearen barruan eta gizartean errotua dago, guardia zibilekin izandako lehenengo enkontruak adierazten duenez, bidaianta ez baita une batez ere urduri jartzen.

Dena dela, Lainezek ezkutuko jarrerak eta jokabideak ere baditu. «Paketeak» entregatzeko geltoki inguruko txokora joaten da, eta, muga bertan egonda, kontrabandoan sartuta dabilela atera liteke. Lainezek, gainera, Joxe eta Abeli muga gurutzatzen laguntzen die. Mugako istiluan guardia bat erasotzen du, iheslariak laguntzeko bere nahia argi uzten duen keinua egitearekin batera. Joxek ere beren antzekoa dela esaten

dio Abeli, hots, uste baino gertuago dagoela beraiek bezalako *outsiderengandik*: «Bidaiantak diferenteak dituk. Horiek batetik bestera ibiltzen dituk» (L, 108. or.). Abel Lainezek guardiak ohartaraziko ote dituen beldur denean, Joxek ez du zalantzarik erakusten, beharbada Lainez beren taldekoa kontsideratzen duelako. Ibiltaria da Lainez, baina nobelaren amaierak iheslarien taldean jartzen du, legearen aurrean beren aldeko jarrera hartzen duelako. Mugako gertakaria eta gero, Lainezek lekutik ihes egiten du, eta jarraian auto istripu bat du. Gertaera horren bidez nobelan zehar hainbat zantzuk aurreratzen zutena gauzatzen da, hau da, Lainez iheslari bihurtzen da (*de facto* gaizkile bilakatuko da) eta gizartetik aparteko munduan kokatzen.

Ibiltarien taldeko pertsonaia da Ramon Beitia ere, *Argiantza* (2020) eleberriko protagonista. Ez dirudi oso ibili zalea, baina, berak aitortzen duenez, «mugitzeko beharra dut, nora ez badakit ere» (A, 10. or.). Beitia lan kontuengatik irten da errepidera, aste-betez zinema aretoak ikuskatzera. Ibilbide laburra burutzen du, baina, etxetik ateratzeko ohiturarik ez duela eta, beldur antza sentitzen du (A, 11. or.). Beitiari nahikoa zaizkio inguruko mugimenduak, eta bidaiariak espedizio luzei aurre egiten dieten bezala egiten dio aurre berez etxetik gertu samar eramaten duen ibilaldiari. Ibilaldi horretan zehar Beitiak barne prozesu osoa bizitzen du, eta bidaiak, batik bat, iraganaz eta etorkizunaz gogoetatzen bultzatzen du. Halako batean, ibilia bera Ramonen bizitzaren metafora gisa agertzen da. Benta bateko andreak, esaterako, amaren oroitzapena daskarkio gogora. Beitiak bere jatorriaz eta galdutako landa eremuko kulturaz hausnartzen jotzen du orduan. Bestalde, iraganaren gaineko burutazioez gain, errepideak, ibiliak, poz unek ere ematen dizkio, une batez gazte sentiarazteraino (A, 58. or.). Edonola ere, Ramoni, gainerako ibiltariei legez, ezinegon lauso bat nagusitzen zaio, «egin beharrekoak eginagatik, ez daukat oso lasai egoteko arrazoirik» (A, 63. or.) dio eta. Bidaiaren bukaera hurbildu ahala gozamen unek urritzen doaz eta langileekin eta sindikalistarekin izandako enkontruak markatzen du hala ibiliaren nola protagonistaren garaiaren amaiera.

6.2. Iheslariak

Larrepetiten (2002) iheslari bikote baten ibilerak aletzen dira. Biak ala biak dira iheslariak, biak kartzelatik hanka egindakoak direnez gero. Hala adierazten da eleberraren hasieran bertan, «ihesean dabilela jendea, ihesean...» (L, 19. or.). Joxe eta Abel goardengatik kukuka dabilta, isil-gordeka eta errepide zein herriei iskin eginez egiten dute aurrera. *Hatza mapa gaineane* (1988) bikoteak bezala (nahiz eta horien aldean baliabide gutxiago dutela iruditu), iheslariak mendian aurkitutako bordetan lo egin eta baserrietako jendeari eskatzen diote jatekoa. Horretan ere elkarren antz handirik ez duten pertsonaiak kausitzen ditugu. Joxe, *Hatza mapa gaineane* (1988) Beatrizen antzera, harat-honat ibiltzera ohituta dagoela dirudi, kontakizun osoan izandako jarrera lasaiagatik: «Bere keinuek [...] ez dute batere larritasunik adierazten, eta helburua oso ongi ezagutzen duen batek eginak dirudite» (L, 66. or.). Abeli, ostera, aldarte urduria igarriko zaio nobelan zehar. Esperientzia handikoa da Joxe, bizitzan eskarmentu dezentekoa. Hori Abelen gaztetasunari eta inozentziari kontrajartzen zaio. Bi izaera ibiltarien arteko aldea nabaria da, alde batetik, Joxeren patxada eta, bestalde, Abelen larritasuna dago. Bestela esanda, Joxerentzat ibilia bizibidea da, egoera arrunta;

Abelentzat, aldiz, ezusteko eta bat-bateko rola da ibiltariarena, egun batetik bestera ezarri zaion kondena itxurako bat, uneoro gainean daraman zama. Abelen ezizenak gorpuzten du zigorra, *Larrepetit* esaten baitiote. Izenean berean darama Abelek inon ez errotzeko mandatua, etengabe mugimenduan jarraitzeko agindua. Joxek ez bezala, ordea, zeinak ibilera gustuko duela dirudien, Abel gogoz kontra dabil ibilian. Hori ematen dute aditzera nobelako hainbat pasartek. Esaterako, ez gutxitan Abelek egoitza bat, partaide sentitzeko leku bat, desiratzen duela ematen du. Horretaz gain, ez du beti ibilian egotera derrigortuta egon nahi, edo gauza bera dena, aske ibili nahi du: «Ez zekiat... Nik, nik libre ibili nahi diat» (L, 48. or.). Hortaz, ibilia irtenbidea litzateke Abelentzat, munduan bere lekua, askatasuna, aurkitzeko aukera bat; Joxe, berriz, ibilian bizi da, ibiltzea du berezko egoera.

Halaber, ibiltari guztiak gainerakoengandik aldentzen badira ere, Joxe bezalako pertsonaien kasuan are nabariagoa da hori. Ijitoa da Joxe (eleberrian zehar hainbat aldiz aipatzen da hori) eta etnia horri esleitu izan zaion nomada izaerarekin bat egiten du. Komeni da gogoratzea, edonola ere, *ijito* izendapena sarritan mugikortasun kontuetan arauetatik aldentu dena definitzeko erabili izan dela. Edozein kasutan, Joxeren jarrerak besteengandik bereizten du, transgresorea izateraino. Adibidez, ez dauka erreparorik jendeari janaria eskatzeko, baita tabakoa ere. Horrelakoek Abel lotsarazten duten arren, Joxerentzat bizibidea aurrera ateratzeko baliabideak baino ez dira. Orobat, Joxek ez du inolako aurreiritzi moralik ibilian lagun dezakeen ezer alboratzeko orduan, izan ere, berak hartzen du aurrea gaua elizan pasatzeko. Hori gutxi balitz bezala, Joxek apaizen arropak erabiltzen ditu hotzetik babesteko, eta ardo sakratua edaten du. Berebat, Lainezen aurrean begien bistakoa da Joxeren izaera *outsidera*, hala esaten dio-eta Abeli Joxeri buruz: «Ez duk nire ardura, baina... –berriz ezpainak busti ditu eta airea atera zaio sudurretik–. Zer ari haiz hi horrekin?» (L, 103. or.). Aipatu bezala, pertsonaiok beren kode propioa dutela lirudike, bizitzaren gaineko ikuspegi erabat beregaina. Esate baterako, Joxek ez daki ezer norabideez, ez mugez. Joxerentzat dena lurralde bera dela dirudi, ibil daitekeen neurrian. Bere mugimendua ibilbiderik eta helmugarik gabekoa izaki, Deleuzeren & Guattariren (1980/1997) *nomada* edo Baumanen (1996) *etxegabearen* ezaugarriak ikus litezke harengan. Bestela esanda, bere izaera nomada ez dator ibiltzearen eta espazioaren gaineko arauekin bat. Are, espazialki ere senaren arabera kokatzen dela ematen du, eta ez inolako norabideak markatuta. Bi pertsonaiek ea nondik joan behar duten eztabaidatzen duteneko pasarte hau oso argigarria da zentzu horretan:

—*Goiti bai* —jarraitu du zuhur Abelek—, *baina nora?*

—*Ba, goiti* —eta jarrera aldatu gabe burua altxatu du oihanaren gainetik toki zehaztugabe bat seinatzeko.

Gorputza zuzendu eta Abeli beha jarri da. —*Goiti goiti duk* —dio bizkarrak harrotuz. Abelek begiak zabal-zabal ditu. Besoak luzatu ditu.

—*Baina hortik jarraituz gero Frantzian sartuko gaituk.*

—*Zer Frantzia?*

—*Ba, Frantzia. Mugaz bestaldekoa.*

Ezer ulertzen ez duenaren aurpegiera du Joxek.

—*Ah, nik ez zekiat* —Ezaxola Joxek. *Nik hara joan behar diat.*

(L, 52. or.)

Horrez gain, Joxeren nomada izaerak iragankortasun eta mugikortasunarekin erabat lotua dirudi. Abelek pinuen birlandatzea aipatzean, kasu, Joxe axolagabe ageri da. Natura ez dakusa kontserbatu beharreko ingurune gisa, bizitzeko aukerak eskaintzen dituen lurraldetzat baizik. Honela diotso Abeli: «Pinua dela, ba, pinua. Hori ez bada beste zer edo zer izanen duk. Gauza bat hartu eta bestea utzi. Eta horrela beti» (L, 55. or.). Hau da, Joxek ez du sentitzen segur aski Abelek senti dezakeen gauzenganako loturarik, partaidetza sentimendurik. Harentzat dena da bizirauteko baliabidea ez besterik. Bestalde, Joxeren izaera ibiltaria hizkuntzara ere isurtzen da. Eleberri osoan zehar nortasun isila erakusten du, are Abel amorrarazterainokoa. Une batean erabiltzen duen hitz batek, ordea, arreta ematen dio Abeli: «Joxe. Joxe diat nik grazia. [...] Grazia. Doinu eta guzti iritsi zaio. Aitari entzundako bertsoren baten durundia, agian. Abel bere buruari galdezka nola iritsi ote den hitza Joxe deitzen omen den horren ezpainetara» (L, 15. or.). Pasarteak «poliglotaen isiltasuna» (Galfarsoro, 2005, 33. or.) dakar gogora. *Grazia* espresioa, Abelengan bertso zahar baten oihartzuna eragiten duena, arrotzaren «s sofistikazio exageratuaren» emari litzateke. Atzerritarraren, nomadaren, ibiltari errariaren, hizkuntza ahots zatikatuez osatuta dago. Hala, bere hizkuntza «estrainiamendu iturri» izango da ezinbestean, baina horrek, Galfarsoren (2005) ustetan, aberastasuna ekar diezaioke: «Baina zama hori, hala ere, opari bilakatzen da, hitz, etxe eta mundu desberdinetan eta desberdinekin bizitzeko ikasi behar horrekin» (Galfarsoro, 2005, 33. or.).

6.3. Ibilía, etxea, espazio domestikoak eta jatorria

Etxea, jatorria eta lolekua bezalakoek presentzia handia dute nobela guztietan. Etxearen edo, hobe esanda, haren gabeziaren arrastoa aurki daiteke aztergai ditugun bi nobeletan ere. Pertsonaiek, orobat, harreman berezia dute beren jatorriarekin eta barne gatazka eragiten die. Ibilian bizi dira eta etxearen oroimen zein ametsak aurrera jarraitzera bultzatzen ditu. Etxea, edo berorren gabezia, nobeletako osagai ezkutua da, narrazioetan zehar presentzia ikusezina duen elementua baita. Izaera ibiltariarekin estuki lotutakoa, gainera. Izenburuan *espazio domestikoak* izendapena ere erabili da, kontzeptuaren esangura modu zabalagoan biltzen duelakoan. Pertsonaien etxeak gutxitan agertzen dira, egileak gehienetan handik kanpo kokatzen duelako narrazioa. Halere, pertsonaia batzuek etxerik badutelako zantzuak daude, ibilian egonagatik habia dutelakoa, alegia. Esaterako, *Larrepitete*ko (2002) Lainezi dagokionez, «itsasotik hurbil dagoen sorteria» (L, 101. or.) aipatzeaz gain, orain mendi hegaletan kokatutako auzoan bizi dela esaten da. Abelen kasuan etxe batean morroi lanak egindakoa dela ematen da aditzera, hots, nolabaiteko espazio domestiko bat ezagutu duela.

Orobat, herritarrek ezagutzen dute eta, Joxe ez bezala, bertakotzat dute. *Argiantza*ko (2020) protagonistaren jatorria ez da garbi geratzen, behin baino gehiagotan ahotan hartzen duen arren bere familia eta bere emazte zena. Hiritik etorria dela aipatzen du pertsonaia batek une batean eta, langile batekin edukitzen duen elkarrizketa dela medio, itsasertzeko herritik hurbilekoa dela jakin dezakegu. Eleberrian bere familia baserritar jatorrikoa dela ere aipatzen da. *Larrepitete*ko (2002) Joxeri, aldiz, ez zaio inongo etxerik ezagutzen. Kurritzen duen inguruaz beste, ez zaio irakurleari bere etxe edota jatorriaren inguruko zertzeladarik ematen. Pertsonaia alderraia da erabat, bidea

du bizileku eta horrek eskaintzen dizkion tokietan igarotzen dituzte gauak. Puntu honetara iritsita, esan beharra dago Lizarralderen nobeletan sarritan bizilekua eta jatorria ez datozela bat, izan ere, batak ez dakar bestea. Ez dira gutxi sortzez toki batekoak izan eta beste batean bizi diren pertsonaiak. *Larrepetiten* (2002), kasu, jaioterria eta bizilekua bereizten ditu Lainezek, eta *Argiantzako* (2020) Beitiak hogeita lau urte ei daramatza bizi den tokian, jaioterritik kanpo.

Laburbilduz, pertsonaia batzuk sorterritik kanpo bizi dira eta denek dute halako gatazka bat beren jaioterriarekiko: identitatearekin zerikusia du. Bigarren mailako hainbat pertsonaiaren bidez ere etxea eta jatorria hartzen dira aipagai. Etxeberriko Patxikok, ezizenez «Txamarro», «hik badakik nik, esateko moduan, bidean dudala etxea...» (L, 25. or.) esaten dio Abeli. Izenak ere etxearekin lotura handia duela igar daiteke, izena baita espazioa esanguraz hornitzeko baliabideetako bat (Cresswell, 2004). Hori horrela, *Larrepetiten* (2002), esaterako, Santzeneko Ines, Etxexuriko Joxepa, Etxeberriko Patxiko, Harantzubiko Demetrio, Bordaxarreko Miel, Etxeberriko Pakita daude. Era berean, Lainezek ostatueta igarotzen ditu gauak; *Argiantzako* (2020) protagonistak, ostera, hoteletan. Bigarrenen aldean, lehenengoez kutsu etxetiarragoa dutela lirudike, bisitarien eta ostalarien artean giza harremanak sortzea ahalbidetzen duten neurrian. Bertan egindako otorduek etxeko berotasun sentipena ematen diete. Juanak gaztanbera jartzen dio Lainezi postrerako, «oso gogokoa duela» (L, 74. or.) baitaki. Horretarako aukerarik ez duten pertsonaiek, hau da, ostatu bat ordaintzeko baliabide falta edo ezkutatu beharra dutenek, bidean zeharkako aterpetan babes hartzera jotzen dute. Mendiko borda batean eta baseliza batean lo egiten dute Joxek eta Abelek, kasu. Foucaulten (1967/1984) sarbide errazeko heterotopiak lirateke tokiok, edonor sartzeko moduko aterpe behin-behinekoak direnez gero. Ostatueta epelaren aldean, leku hauen ezaugarri nagusia arrotasuna eta arriskua da. Alabaina, pertsonaiak saiatzen dira behin-behineko aterpeak eta lolekuak etxekotzen, Abelek Joxe eta berak babes hartzen duten elizan egin bezala: «Aire epeleko etxe batean gerizatu da, eta etxe hori kutxa bihurtu zaio, eta argi ilun batek urruma bat ekarri dio eztarriraino» (L, 71. or.).

7. ONDORIOAK

Artikulu honen asmoa Pello Lizarralderen bi eleberritako espazioa eta ibiliaren errepresentazioak aztertzea izan da, 2002ko *Larrepetit* eta 2020ko *Argiantza* nobeletakoak, hain zuzen. Alde batetik, berebiziko garrantzia hartzen du espazioak eleberririk horietan, hala paisaiaren eta tokien deskribapenari dagokionez nola pertsonaiek inguruarekin dituzten harreman esanguratsuei begira. Bestalde, pertsonaioek ibilian kokatzen ditu autoreak, eta uneoro etxetik kanpo kausitzen ditugu, alderrai, ihes betean edota mandatu batek hartaratutako ibilian. Bi gai horiek behin eta berriro agertu dira aztertutako lanetan. Ez beti modu berean, halere, berorien irudikapenetan aldaketak antzematen baitira nobela batetik bestera.

Espazioari dagokionez, aldea sumatzen da eleberrietako paisaietan. Inguruneak lotura desberdinak ezartzen ditu pertsonaiekin lan batean edo bestean, eta helduleku

zein traba desberdinak ematen dizkie. *Larrepiteten* (2002) ernatu berri den natura eta udaberriko paisaia ikus daitezke; *Argiantzan* (2020) uda amaiera eta udazken hasierako trantsizioko eguraldia dago; eguraldiaren eta paisaiaren ingurukoak, gainera, garrantzitsuak dira Ramon Beitia protagonistaren espazioaren pertzepzioan. Era berean, bilakaera ekonomikoaren ondorio espazialak (Harvey, 1989) antzematzen dira eleberrietan. *Larrepiteten* (2002) 1960ko hamarkada inguruko garapen teknologikoa ageri da, landa eremuan eragindako aldaketak zein nabaritzen hasiak ziren ondorio ekologikoak. Orobat, landaren eta eremu urbanoen arteko tentsioa iradokitzen da eta aipatutako bilakaera ekonomikoaren oihartzun kulturalak suma daitezke. *Argiantzan* (2020), berriz, berrantolaketa espazialak ekarritako paradigma kultural eta ideologiko (Soja, 1989) berria erakusten da. *Larrepiteten* (2002) igar zitekeen prozesuaren erpina dateke berau, bilakaera ekonomiko-espazialean berebiziko katebegia.

Bestalde, espazioaren esangura azaleratzen dute eleberrietako beste zenbait osagaik. Esaterako, azpimarratu beharrekoak dira *etxe* nozioarekin lotutako tokiak, hala nola, jaioterria, bizilekua edota espazio domestikoak (Bachelard, 1958/1994; Relph, 1976). Tokiok harreman estua dute mugikortasunarekin eta pertsonaien izaera ibiltariarekin. Pertsonaia gehienek etxearen ideiarekin barne gatazka bizi dutenez, garrantzi handikoak dira horiek. Maiz ez dira fisikoak, lausoak eta ikusezinak baizik (Bachelard, 1958/1994). Ikusi dugunez, etxearekiko loturak badu tokia aztertutako eleberrien pertsonaien karakterizazioan.

Ibiliaren gaia ere ez da gisa beretsuan adierazten eleberri bakoitzean. Esan bezala, horren arrazoiak ere ez dira beti berberak. Hainbatetan pertsonaiak ibilian jartzera bultzatzen ditu lanbideak edo mandatu bat konplitu beharrak. Lanbideak herriz herri ibiltzera behartzen ditu *Larrepititeko* (2002) Lainez zein *Argiantzako* (2020) Beitia. Beraz, beren ibilia zedarritua da, puntu batetik bestera mugatua ustez. Segurutasunaren bermea ere badute, ez baitaude bestelako ibiltari batzuk bezain babesgabe. Halere, ibilerak muga batzuk haustera eramaten ditu batzuetan eta horiek puskatuta muturreko esperientziak izaten dituzte, sarritan iheslarietako loturan. Era berean, etengabeko mugimenduan bizitzeak zenbait gatazka eragiten dizkie, nagusiki *jaioterri* edo *herri* bezalako ideiekin zerikusia dutenak. Halaber, zenbaiten nomada izaerak berezitasuna eransten dio *etxe* nozioarekin duten harremanari. Orobat, izaera ibiltariak pertsonaien identitatearekin lotura estua du, inguruarekiko hartu-emanak zein ibiliaren esperientziak berak antzaldaten baititu (Waterton, 2019).

Bidea atzera begira jartzeko baliatzen dute eta horrek eraldaketa nabarmena gautzen du eurengan. Horixe da, hain zuzen, oraintsu aipatutako pertsonaien kasua. Eleberrietan bestelako ibiltariak ere azaltzen dira: iheslariak, hain zuzen. Talde horretakoak dira Abel eta Joxe (*Larrepetit*, 2002). Ihes betean bizi dira pertsonaiak, gertaera jakin bat dela-eta ihesari eman diotenak. Ihesaldiaren arrazoiak ez zaizkio beti argi ematen irakurleari, sarri elipsien edo testuan han-hemenka ageri diren zertzeladen bitartez baino ez da jakiten zerk bultzatu duen pertsonaia alde egitera. Aurreko ibiltarien aldean, premia handiagokoa da iheslarien urratsa, larritasunak ezaugarritzen duenez burutu behar duten ibilaldia. Ez gutxitan, gainera, norbait

dute atzetik segika, jazarle bat ere azaltzen da beren pausoei jarraitu nahian. Iheslarien eta ibiltari soilen arteko alde lausoak ibiliaren normatibitateaz hausnartze-ko balio dezake, Cresswellek & Merrimanek (2011) aipatutako mugikortasunaren izaera ez-hegemonikoaren ildotik. Joxe bezalako pertsonaiek, berriz, Deleuzeren & Guattariren (1980/1997) nomada dakarte gogora, ibiliaren ibiliz espazioa *territorializatzen* duten heinean.

Horrenbestez, lanaren helburu nagusia bete da: alegia, Lizarralderen bi eleberrietan *espazioa* eta *ibilia* kontzeptu giltzarri eta esanguratsuak direlako ustea baieztatu eta gaion agerpena teoria garaikide zenbaitekin lotzea. Autoreak espazioaren gaineko diskurtso aberatsa eratzten du, Euskal Herriaren XX. mendeko bilakaera espaziala marraztuz eta bilakaera horren arrazoi zein ondorio ekologiko, ekonomiko eta politikoak aletuz: hala nola, kutsadura eta kalte ekologikoak, lehenengo sektorearen gainbehera, espazioaren pribatizazioa eta neoliberalismoaren gorakada. Halaber, bi eleberrietan espazioaren barruko osagaia den paisaia nabarmentzen da. Naturak presentzia handia du bi lanetako paisaietan, eta pertsonaiek beren identitatea definitzen dute inguruarekiko harremanaren bidez. Identitatearen osaketan, beraz, espazioak berebiziko tokia du, mugikortasunarekin batera. Espazioaren antzera, izan ere, pertsonaien izaera ibiltariak ere taxutzen du beraien nortasuna, *Larrepetitetik* (2002) aterako adibide ugariekin frogatu den bezalaxe. Antzeman den gisan, zentzumenek zeresan handia dute ibilian zeharkako espazioarekiko harremanean; beroriek inguruaren pertzepzioan duten funtzioari buruzko azterketa xeheagoa egiteko dago, halere. Teoria ez-errepresentazionalak eta performatibitatearen arloko ekarpenak baliagarriak izan litezke horretan. Horrekin batera, pertsonaien emozioen eta espazioaren arteko loturan ere badago zer aztertu, batik bat, Afektu Ikasketak erabiliz. Har bitez bi iradokizunok etorkizuneko lanen akuilu.

Lanaren beste helburu bat euskal literatur ikerketetan presentzia txikia duten gai eta arloak argitara ekartzea izan da. Alde batetik, marko teorikoari dagokionez, lan honetan euskal literaturari oraindik sakonki aplikatu ez zaizkion oinarri teoriko-metodologikoak erabili dira, ekokritika eta mugikortasuna, kasu. Lehenengoa mamitsua izan daiteke euskal literatur ikerketan, euskal paisaia literarioari buruzko analisisietan lagungarri izan daitekeenez gero. Era berean, bigarrenaren argitan zenbait fenomeno garaikide azter daitezke, hala nola, migrazioa, berau euskal literaturan zertan den ikus-teko. Bestalde, ikerketa akademikoetan arreta handirik jaso ez duen euskal idazle baten figuran fokoa jarri nahi izan da. Euskal literaturan apustu bakana da Pello Lizarralderena, bere esanetan estilo aldetik konplize gutxi topatu baititu. Aldiz, ezaguna zaio nazioarteko zenbait idazleekiko antzekotasuna, hala nola, Cormac McCarthy, Patrick Modiano edota Peter Handkekiko. Hori dela eta, bere obrak nazioarteko literatura garaikidearen oihartzunak ekartzen dituen neurrian, alderdi literario hutsetik ere aztertzeke egile zeharo interesgarria da. Helburu bikoitz hau, hots, marko teorikoaren zein aztertutako egilearen aldetiko berritasuna, bete dela esan daiteke. Edonola ere, desiragarria litzateke, batetik, erabilitako arlo teorikoak aurrerantzean gehiago jorratzea eta zenbait literatur lan aztertzeke baliatzea eta, bestalde, Pello Lizarralderen obrari buruzko lanak ere ugaritzea.

8. LIZARRALDEREN LANAK

- Celati, G. (1976/2005). *Denak hasperenka* (P. Lizarralde, itz.). Igela.
- Ginzburg, N. (1942/2001). *Hirira doan bidea* (P. Lizarralde, itz.). Igela.
- Ginzburg, N. (1961/2003). *Arratseko ahotsak* (P. Lizarralde, itz.). Igela.
- Lizarralde, P. (1978). *Hilargiaren hotzikarak*. Ustela saila.
- Lizarralde, P. (1984). *E pericoloso sporgersi*. Pamiela.
- Lizarralde, P. (1988). *Hatza mapa gainean*. Pamiela.
- Lizarralde, P. (1994). *Sargori*. Pamiela.
- Lizarralde, P. (1998). *Un ange passe – isilaldietan–*. Erein.
- Lizarralde, P. (2002). *Larrepetit –hiru izen–*. Erein.
- Lizarralde, P. (2008). *Iragaitzaz –ilunbistan–*. Erein.
- Lizarralde, P. (2012). *Orbanak*. Erein.
- Lizarralde, P. (2016). *Elur bustia*. Erein.
- Lizarralde, P. (2020). *Argiantza*. Erein.
- Modiano, P. (1993/2008). *Udaberi alua* (P. Lizarralde, itz.). Igela.
- Vittorini, E. (1941/2021). *Solasaldia Sizilian* (P. Lizarralde, itz.). Igela.

9. ERREFERENTZIAK

- Augé, M. (1993/2000). *Los no lugares. Espacios del anonimato. Una antropología de la sobremodernidad* (M. Mizraji, itz.). Gedisa.
- Bachelard, G. (1958/1994). *The poetics of space* (M. Jolas, itz.). Beacon Press.
- Bajtín, M. (1975/1989). *Teoría y estética de la novela* (H. S. Kriükova & V. Cazcarra, itz.). Taurus.
- Bauman, Z. (1996). From pilgrim to tourist – or a short history of identity. In S. Hall & P. Du Gay (arg.), *Questions of cultural identity* (18.-36. or.). Sage.
- Berberich, C., Campbell, N. & Hudson, R. (2012). Introduction: framing and reframing land and identity. In C. Berberich, N. Campbell & R. Hudson (arg.), *Land and identity: theory, memory and practice* (17.-39. or.). Rodopi. https://doi.org/10.1163/9789401207430_004
- Buell, L. (2005). *The future of environmental criticism: environmental crisis and literary imagination*. Blackwell.
- Byerly, A. (1996). The uses of landscape: the picturesque aesthetic and the National Park System. In C. Glotfelty & H. Fromm (arg.), *The ecocriticism reader: landmarks in literary ecology* (52.-68. or.). University of Georgia Press.
- Cresswell, T. (2004). *Place: a short introduction*. Blackwell.
- Cresswell, T. & Merriman, P. (2011). Introduction. In T. Cresswell & P. Merriman (arg.), *Geographies of mobilities: practices, spaces, subjects* (1.-19. or.). Ashgate.
- Crouch, D. (2012). Landscape, land and identity: a performative consideration. In C. Berberich, N. Campbell & R. Hudson (arg.), *Land and identity: theory, memory and practice* (41.-65. or.). Rodopi. https://doi.org/10.1163/9789401207430_005
- Deleuze, G. & Guattari, F. (1980/1997). *Mil mesetas: capitalismo y esquizofrenia* (J. Vázquez, itz.). Pre-Textos.

- Divall, C. (2014). Mobilities and transport history. In P. Adey, D. Bissel, K. Hannam, P. Merriman & M. Sheller (arg.), *The Routledge handbook of mobilities* (36.-44. or.). Routledge.
- Egaña, I. (2012/05/19). Ñabardurak. *Deia*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5470>
- Elhuyar. (2016). *Collins Elhuyar hiztegia*. <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>
- Esparza, I. (2016/07/12). Bihotzaren biguntzea elur bustian. *Gara*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=6972>
- Euskal Telebista. (2020). Artefaktua: Pello Lizarralde. *Eitb nahieran*. <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/kultura/artefaktua/pello-lizarralde/oso/7187/181277/>
- Euskaltzaindia. (2012). *Euskaltzaindiaren hiztegia*. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu
- Faulkner, W. (1930). *As I lay dying*. Jonathan Cape & Harrison Smith.
- Foucault, M. (1967/1984). Of other spaces: utopias and heterotopias (J. Miskowiec, itz.). *Architecture, Mouvement, Continuité*, 5. <http://web.mit.edu/allanmc/www/foucault1.pdf>
- Galarraga, A. (2013/01/13). Sasi eta asuin. *Argia*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=5706>
- Galfarsoro, I. (2005). *Kultura eta identitate erbesterratuak (nomadologia subalternoak)*. Pamiela.
- Garrard, G. (2012). *Ecocriticism*. Routledge.
- Glotfelty, C. (1996). Introduction: literary studies in an age of environmental crisis. In C. Glotfelty & H. Fromm (arg.), *The ecocriticism reader: landmarks in literary ecology* (15.-37. or.). University of Georgia Press.
- Harvey, D. (1989). *The condition of postmodernity: an enquiry into the origins of cultural change*. Blackwell.
- Jameson, F. (1991/2020). *Teoría de la postmodernidad* (C. Montolío & R. del Castillo, itz.). Trotta.
- Lippard, L. R. (1997). *The lure of the local: senses of place in a multicentered society*. The New Press.
- Lorimer, H. (2005). Cultural geography: the business of being «more-than representational». *Progress in Human Geography*, 29(1), 83-94. <https://journals.sagepub.com/doi/10.1191/0309132505ph531pr>.
- Massey, D. (2005). *For space*. Sage.
- Milani, R. (2008). Estética y crítica del paisaje. In J. Nogué (arg.), *El paisaje en la cultura contemporánea* (45.-66. or.). Biblioteca Nueva.
- Nogué, A. (2008). El paisaje en el arte contemporáneo: de la representación a la experiencia del paisaje. In J. Nogué (arg.), *El paisaje en la cultura contemporánea* (155.-168. or.). Biblioteca Nueva.
- Peters, J. D. (1999). Exile, nomadism and diaspora: the stakes of mobility in the western canon. In H. Naficy (arg.), *Home, exile, homeland: film, media and the politics of place* (17.-43. or.). Routledge.
- Relph, E. (1976). *Place and placelessness*. Pion Limited.
- Rojo, J. (2020/10/31). Errepidean. *El Diario Vasco*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=8175>
- Soja, E. (1989). *Postmodern geographies: the reassertion of space in critical social theory*. Verso.

- Tally, R. (2013). *Spatiality*. Routledge.
- Thrift, N. (2006). Space. *Theory, Culture & Society*, 23(2-3), 139-146. <https://doi.org/10.1177/0263276406063780>
- Waterton, E. (2019). Landscape and non-representational theories. In P. Howard, I. Thompson & E. Waterton (arg.), *The Routledge companion to landscape studies* (2. argitaraldia, 66.-75. or.). Routledge.
- Williams, R. (1973). *The country and the city*. Oxford University Press.
- Williams, R. (1976/2015). *Keywords: a vocabulary of culture and society*. Oxford University Press.
- Zimmer, J. (2008). La dimensión ética de la estética del paisaje. In J. Nogué (arg.), *El paisaje en la cultura contemporánea* (27.-44. or.). Biblioteca Nueva.

